

## 2019ko Portu Tasak eta Tarifak

### SARRERA

Agiri honetan Pasaiaiko Portuan 2019ko urtarilaren 1etik aurrera aplikatu beharreko portuko tasak eta tarifak ageri dira. Aipatu tasa eta tarifak hurrengo arauen aplikazioaren emaitza dira: Estatuko Portuen eta Merkantzia Ontzien Legearen Testu Bategina onesten duen irailaren 5eko 2/2011 Errege Dekretu Legegilea eta 2018. urterako Estatuko Aurrekontu Orokorren uztailaren 3ko 6/2018 Lege luzatua aplikatuz, eta Portuko Agintaritzako Administrazio Kontseiluaren Erabakiak, Pasaiaiko Portuko Agintaritzak emandako zerbitzu komertzialengatik tarifak onesteari buruzkoak, eta 2018ko abenduaren 13an egindako bileran hartuak.

Aipatu diren Legeetan dioenez, tasak honako kontzeptu hauengatik aplikatuko dira:

- Itsasontziaren tasa
- Bidaiarien tasa
- Salgaiaren tasa
- Arrantza freskoaren tasa
- Kirol- eta jolas-itsasontzien tasa
- Igarotze-gunearen erabilera bereziagatik tasa
- Jarduera-tasa
- Nabigazioarentzako laguntzaren tasa

Estatuko Portuen eta Merkantzia Ontzien Legearen Testu Bategina onesten duen irailaren 5eko 2/2011 Errege Dekretu Legegilearen hogeita bigarren xedapen gehigarriak dioenez, Portuko Agintaritzek Estatuko Portuen herri-erakundearekin hitzartuko dituzte, Enpresa Planeko akordioen eremuan, itsasontziaren, bidaiarien eta salgaiaren tasen koefiziente zuzentzaileei dagozkien proposamenak, 166 artikuluan ezarritako mugen eta irizpideen arabera.

2018 urterako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko 6/2018 Legearen 91 eta 92 artikuluetan ezarritakoaren arabera, itsasontziaren, salgaiaren eta bidaiarien tasei eta ontziek sortutako hondakinak jasotzeko tarifa finkoari aplikatuko zaizkien koefiziente zuzentzaileak honako hauek dira:

- Itsasontziaren tasa: 1,25
- Salgaiaren tasa: 1,15
- Bidaiarien tasa: 0,95
- Ontziek sortutako hondakinak jasotzeko tarifa finkoa: 1,30

## 2019ko Portu Tasak eta Tarifak

### ITSASONTZIAREN TASA (T-1)

1. Tasa honen zergapeko egitatea hauxe da: itsasontziek portuko zerbitzuguneko urak eta esleitu zaian atrakatzeko edo ainguratzeko postura itsasoz sartzea ahalbidetzen duten portuko obra eta instalazioak erabiltzea, eta bertan egotea, kasu bakoitzean zehazten diren baldintzetan. Tasa honen zergapeko egitatea da, halaber, dagokion Portuko Agintaritzarenak diren eta erabiltzaileek baimenik eskatu beharrik gabe jasotzen dituzten zerbitzu komunak ematea, jabari publikoko aipatu elementuekin lotuak.

2. Subjektu pasiboak izango dira, zergadun diren neurrian eta solidarioki, jabea, ontzi-ustiatzailea eta itsasontziaren kapitaina. Itsasontzia kontsignatuta baldin badago, zergadunen ordezkotako subjektu pasiboa ontzi-kontsignatariora izango da. Emakidan edo baimenarekin jasotako kai, pantalan eta atrakatzeko portu-instalazioetan, zergadunen ordezkotako subjektu pasiboa emakidaduna edo baimenduna izango da.

Manu honetan izendatutako ordezkotako guztiak solidarioki behartuta geratuko dira zerga-betebeharraren ondoriozko eskakizun material eta formalak betetzera, Portuko Agintaritzak lehenik emakidaduna edo baimendunarengana jotzeari kalterik egin gabe. Ordezkoek ez badituzte beren betebeharrak betetzen, eta bereziki, ez badute tasa ordaintzen, Portuko Agintaritzak zergadunei eskatu ahalko die berau ordaintzeko. Hori guztia, ordezkotako izan ditzaketan erantzukizunei kalterik egin gabe.

3. Tasa hau itsasontzia portuko zerbitzuguneko uretan sartzen denean sortuko da.

4. Tasaren kuota osoa honako hau izango da:

1. gunean edo portu barruko uretan, itsasontziak edo tresna flotatzaileak atrakatzeko edo ainguratzeko postura sartzeko eta bertan egoteko: itsasontziaren tonaje gordinaren (GT) ehunena -gutxienez 100 GT izanda-, bertan emandako denborarekin (ordu edo frakzio bateko denboraldietan zenbatuko da; gutxienez 3 ordu zenbatuko dira geldialdi bakoitzeko, eta 15 ordu gehienez 24 orduko geldialdi bakoitzeko) eta B oinarriko zenbatekoari (1,43 €) edo Sri (1,20 €), bide laburreko itsas garraioaren kasuan (BLIG), 1,25eko koefiziente zuzentzailea eta, dagokionaren arabera, hurrengo koefizienteak aplikatuz ateratzen den kopuruarekin biderkatuz lortzen den zenbatekoa.

Bertan emandako denbora, itsasontziak lehenengo soka amarratu edo aingura botatzen duen unetik azken soka askatu edo aingura hondotik altxatzen duen unera arte zenbatuko da. Hala ere, egonaldia zenbatzearen ondorioetarako, larunbateko 12:00etatik edo jaiegun baten aurreko eguneko 21:00etatik hurrenez hurren asteleheneko edo jaiegunaren osteko eguneko 7:00ak bitarteko tartean 5 ordu zenbatuko dira gehienez, baldin eta denbora horretan ez baldin bada inolako merkataritza-jarduerarik egin, hornidura eta konponketak barne. Egonaldi horrek 5 ordu gairatzen baditu, asteleheneko edo jaiegunaren osteko eguneko 7:00etatik aurrera hasiko da gehieneko muga (15 ordu 24 orduko tarte bakoitzeko) zenbatzeko denbora.

**BLIG:** salgaiak eta/edo bidaiariak garraiatzeko **itsas zerbitzua**, soilik Europar barrena nabigatzen duten itsasontzien bidez egiten dena, dela Europar geografikoki kokaturiko portuen artean, dela portu horien eta Europa inguratzen duten itsaso itxien ertzeko herrialde ez europarretako portuen artean, azken horien irlak edo haien mendeko lurralde ez kontinentalak barne. Kontzeptu honek, halaber, Europar Batasuneko Estatu kideen, Norvegiaren eta Islandiaren eta Baltikoko, Itsaso Beltzeko eta Mediterraneo Itsasoko beste Estatu batzuen arteko itsas garraioa hartzen du barne.

**ITSAS ZERBITZUA:** portu batean trafiko-mota jakin bati ematen zaion zerbitzua, ontzi-konpainia edo itsas bidaien konpainia bereko itsasontzi batek edo batzuek portu hori beste portu batzuekin lotzen dutenean, mota eta izaera bereko salgaiak edota bidaiari, garraio-elementu edo karga-unitate mota zehatz bat garraiatuz.

**ITSAS ZERBITZU ERREGULARRA:** portu batean trafiko-mota jakin bati ematen zaion zerbitzua, ontzi-konpainia edo itsas bidaien konpainia bereko itsasontzi batek edo batzuek (edo itsasontzien ustiapena partekatuzko akordioak egin dituen konpainia-multzo bateko itsasontziek) portu hori beste portu batzuekin lotzen dutenean, mota eta izaera bereko salgaiak edota bidaiari, garraio-elementu edo karga-unitate zehatz bat garraiatuz, eta gainera, orokorrean eta publikitate bidez

**2019ko Portu Tasak eta Tarifak**

balizko erabiltzaileei eskaintzen zaiena, erregularitasunez ematen dena jatorriak, helmugak eta datak aldeaz aurretik finkatuz, eta dagokion portuan urtean 24 geldialdi gutxienez egiten dituenak.

**ARAUBIDE OROKORRA**

$$(GT/100) \times E \times (B \text{ edo } S) \times KZ \times \text{koefizienteak}$$

E: egonaldia

B: oinarrizko zenbatekoa 1,43 €

S: oinarrizko zenbatekoa 1,20 € (BLIG)

KZ: Itsasontziaren tasaren koefiziente zuzentzailea (1,25)

Honako hauek bereizten dira:

- Araubide orokorra
- Hornidura, zuzkidura edo konponketa, gehienez 48 orduko egonaldiarekin. Denboraldiaren gainerakoa araubide orokorrean: (Hornidura)
- Salgaien zamalanak gurgil bidez egiten dituzten itsasontziak, BLIGan dihardutenak: Ro-Ro BLIG. S oinarrizko zenbatekoa aplikatzen da (1,20 €)
- Salgaien zamalanak gurgil bidez egiten dituzten itsasontziak, BLIG erregularrean dihardutenak: Ro-Ro BLIG erregularra. S oinarrizko zenbatekoa aplikatzen da (1,20 €)
- Itsas bidai turistikorako ontziak. Oinarrizko kopurua ezarriko da (1,43 €).

Itsas zabalean bere propulsiarako erregai bezala gas natural erabiltzen duten itsasontziei, baita portuko egonaldian gas natural edo motorrak elikatzekeo kaitik hornitutako argi indarra erabiltzen dutenei 0,5eko koefizientea ezarriko zaie ezarritakoekin bateragarri izanik.

1. Kai edo pantalanetan zeharka atrakatutako itsasontziak, atrakalekua emakidan edo baimenarekin jaso ez dutenak:

		Gas natural edo kaitik hornitutako argi indarra
Araubide orokorra	$(GT/100) \times E \times (B \text{ edo } S) \times 1,25$	$(GT/100) \times E \times (B \text{ edo } S) \times 0,625$
Hornidura	$(GT/100) \times E \times (B \text{ edo } S) \times 0,3125$	$(GT/100) \times E \times (B \text{ edo } S) \times 0,15625$
Ro-Ro BLIG	$(GT/100) \times E \times 1,35$	$(GT/100) \times E \times 0,675$
Ro-Ro BLIG erregularra	$(GT/100) \times E \times 0,9$	$(GT/100) \times E \times 0,45$
Itsas bidai turistikoa	$(GT/100) \times E \times 1,25125$	$(GT/100) \times E \times 0,625625$

2. Kai edo pantalanetan zeharka atrakatutako itsasontziak, atrakalekua eta ur-esparrua emakidan edo baimenarekin jaso dituztenak, baldin eta emakidan jasotako ur-esparruaren azalera, gutxienez, itsasontzia atrakalekuan segurtasun-baldintza egokietan egoteko nahikoa bada.

		Gas natural edo kaitik hornitutako argi indarra
Araubide orokorra	$(GT/100) \times E \times (B \text{ edo } S) \times 0,75$	$(GT/100) \times E \times (B \text{ edo } S) \times 0,375$
Hornidura	$(GT/100) \times E \times (B \text{ edo } S) \times 0,1875$	$(GT/100) \times E \times (B \text{ edo } S) \times 0,09375$
Ro-Ro BLIG	$(GT/100) \times E \times 0,81$	$(GT/100) \times E \times 0,405$
Ro-Ro BLIG erregularra	$(GT/100) \times E \times 0,54$	$(GT/100) \times E \times 0,27$
Itsas bidai turistikoa	$(GT/100) \times E \times 0,75075$	$(GT/100) \times E \times 0,375375$

3. Kai edo pantalanetan zeharka atrakatutako itsasontziak, atrakalekua emakidan edo baimenarekin jaso dutenak, emakidan eta baimenarekin jasotako ur-esparrurik izan gabe, edo behar adinako ur-esparrurik izan gabe:

**2019ko Portu Tasak eta Tarifak**

		Gas natural edo kaitik hornitutako argi indarra
Araubide orokorra	$(GT/100) \times E \times (B \text{ edo } S) \times 0,875$	$(GT/100) \times E \times (B \text{ edo } S) \times 0,4375$
Hornidura	$(GT/100) \times E \times (B \text{ edo } S) \times 0,21875$	$(GT/100) \times E \times (B \text{ edo } S) \times 0,109375$
Ro-Ro BLIG	$(GT/100) \times E \times 0,945$	$(GT/100) \times E \times 0,4725$
Ro-Ro BLIG erregularra	$(GT/100) \times E \times 0,63$	$(GT/100) \times E \times 0,315$
Itsas bidai turistikoa	$(GT/100) \times E \times 0,875875$	$(GT/100) \times E \times 0,4379375$

**ATRAKALEKUKO EGONALDI ETA ERABILERA LUZEA**

Tasaren kuota osoa kalkulatzeko, itsasontziaren gutxieneko tonaje gordina (GT) 50 GTkoa izango da. Egonaldia ez da zenbatuko ordubete edo frakzio bateko denboraldietan, orokorrean egiten den bezala, baizik eta 24 ordu edo frakzio bateko denboraldietan.

Idatz-zati honen aplikazioaren ondorioetarako, egonaldi eta erabilera luzetzat joko da zazpi egun gainditzen dituen, i) idatz-zatian ezarritakoa salbuetsiz.

Kasu guztietan, B oinarriko zenbatekoa aplikatuko da (1,43 €).

Honako hauek bereizten dira:

- Atrakalekua emakidan jaso ez duten itsasontziak.
- Atrakalekua emakidan edo baimenarekin jaso dutenak, emakidan eta baimenarekin jasotako ur-esparrurik izan gabe, edo behar adinako ur-esparrurik izan gabe.
- Atrakalekua eta ur-esparrua emakidan edo baimenarekin jaso dituztenak, baldin eta emakidan jasotako ur-esparruaren azalera, gutxienez, itsasontzia atrakalekuan segurtasun-baldintza egokietan egoteko nahikoa bada.

Itsas zabalean bere propulsiarako erregai bezala gas natural erabiltzen duten itsasontzietan, baita portuko egonaldian gas natural edo motorrak elikatzeke kaitik hornitutako argi indarra erabiltzen dutenei 0,5eko koefizientea ezarriko zaie ezarritakoekin bateragarri izanik.

a) Salgaien eta bidaiarien barruko trafikoko itsasontziak:

		Gas natural edo kaitik hornitutako argi indarra
Atrakalekua emakidan jaso ez dutenak	$(GT/100) \times E \times 7,15$	$(GT/100) \times E \times 3,575$
Atrakalekua emakidan jaso dutenak, ur-esparrurik gabe	$(GT/100) \times E \times 5,005$	$(GT/100) \times E \times 2,5025$
Atrakalekua eta ur-esparrua emakidan jaso dituztenak	$(GT/100) \times E \times 4,29$	$(GT/100) \times E \times 2,145$

b) Dragatzeko edo hornidura egiteko erabilietako itsasontziak:

		Gas natural edo kaitik hornitutako argi indarra
Atrakalekua emakidan jaso ez dutenak	$(GT/100) \times E \times 8,347625$	$(GT/100) \times E \times 4,1738125$
Atrakalekua emakidan jaso dutenak, ur-esparrurik gabe	$(GT/100) \times E \times 5,8433375$	$(GT/100) \times E \times 2,92166875$
Atrakalekua eta ur-esparrua emakidan jaso dituztenak	$(GT/100) \times E \times 5,008575$	$(GT/100) \times E \times 2,5042875$

c) Ur gainean eraikitzen, konpontzen edo eraldatzen ari diren itsasontziak, eta baita ere, ontziolatik kanpo zatikatzen ari direnak:

		Gas natural edo kaitik hornitutako argi indarra
Atrakalekua emakidan jaso ez dutenak	$(GT/100) \times E \times 2,377375$	$(GT/100) \times E \times 1,1886875$
Atrakalekua emakidan jaso dutenak, ur-esparrurik gabe	$(GT/100) \times E \times 1,6641625$	$(GT/100) \times E \times 0,83208125$
Atrakalekua eta ur-esparrua emakidan jaso dituztenak	$(GT/100) \times E \times 1,426425$	$(GT/100) \times E \times 0,7132125$

**2019ko Portu Tasak eta Tarifak**

- d) Ur gainean eraikitzen, konpontzen edo eraldatzen ari diren itsasontziak, eta baita ere, ontziolan zatikatzen ari direnak:

		Gas natural edo kaitik hornitutako argi indarra
Atrakalekua emakidan jaso ez dutenak	$(GT/100) \times E \times 0,89375$	$(GT/100) \times E \times 0,446875$
Atrakalekua emakidan jaso dutenak, ur-esparrurik gabe	$(GT/100) \times E \times 0,625625$	$(GT/100) \times E \times 0,3128125$
Atrakalekua eta ur-esparrua emakidan jaso dituztenak	$(GT/100) \times E \times 0,53625$	$(GT/100) \times E \times 0,268125$

- e) Arrantzontziak, baldin eta geldialdi biologikoan badaude, edo beren xede-arrainetakoren bat debekualdian badago, edo arrantzarako aldi baterako baimen edo lizentziarik ez badute edo urteko arrantza-kuotaren bat ezarria badute, baita urteko kupo hori erabat ahitu ondoren ere:

		Gas natural edo kaitik hornitutako argi indarra
Atrakalekua emakidan jaso ez dutenak	$(GT/100) \times E \times 0,804375$	$(GT/100) \times E \times 0,4021875$
Atrakalekua emakidan jaso dutenak, ur-esparrurik gabe	$(GT/100) \times E \times 0,5630625$	$(GT/100) \times E \times 0,28153125$
Atrakalekua eta ur-esparrua emakidan jaso dituztenak	$(GT/100) \times E \times 0,482625$	$(GT/100) \times E \times 0,2413125$

- f) Gordailutze judizialean dauden itsasontziak:

		Gas natural edo kaitik hornitutako argi indarra
Atrakalekua emakidan jaso ez dutenak	$(GT/100) \times E \times 1,7875$	$(GT/100) \times E \times 0,89375$
Atrakalekua emakidan jaso dutenak, ur-esparrurik gabe	$(GT/100) \times E \times 1,25125$	$(GT/100) \times E \times 0,625625$
Atrakalekua eta ur-esparrua emakidan jaso dituztenak	$(GT/100) \times E \times 1,0725$	$(GT/100) \times E \times 0,53625$

- g) Jardunean ez dauden itsasontziak, arrantza-ontziak eta tresna flotatzaileak barne:

		Gas natural edo kaitik hornitutako argi indarra
Atrakalekua emakidan jaso ez dutenak	$(GT/100) \times E \times 8,347625$	$(GT/100) \times E \times 4,1738125$
Atrakalekua emakidan jaso dutenak, ur-esparrurik gabe	$(GT/100) \times E \times 5,8433375$	$(GT/100) \times E \times 2,92166875$
Atrakalekua eta ur-esparrua emakidan jaso dituztenak	$(GT/100) \times E \times 5,008575$	$(GT/100) \times E \times 2,5042875$

- h) Atoian eramateko, amarratzeko, praktikajea egiteko eta portuko bestelako zerbitzuak emateko erabiltzen diren itsasontziak:

		Gas natural edo kaitik hornitutako argi indarra
Atrakalekua emakidan jaso ez dutenak	$(GT/100) \times E \times 4,164875$	$(GT/100) \times E \times 2,0824375$
Atrakalekua emakidan jaso dutenak, ur-esparrurik gabe	$(GT/100) \times E \times 2,9154125$	$(GT/100) \times E \times 1,45770625$
Atrakalekua eta ur-esparrua emakidan jaso dituztenak	$(GT/100) \times E \times 2,498925$	$(GT/100) \times E \times 1,2494625$

- i) Hilabetetik gorako egonaldia egiten duten bestelako itsasontziak, epe hori amaitzen den unetik:

**2019ko Portu Tasak eta Tarifak**

		Gas natural edo kaitik hornitutako argi indarra
Atrakalekua emakidan jaso ez dutenak	$(GT/100) \times E \times 8,347625$	$(GT/100) \times E \times 4,1738125$
Atrakalekua emakidan jaso dutenak, ur-esparrurik gabe	$(GT/100) \times E \times 5,8433375$	$(GT/100) \times E \times 2,92166875$
Atrakalekua eta ur-esparrua emakidan jaso dituztenak	$(GT/100) \times E \times 5,008575$	$(GT/100) \times E \times 2,5042875$

Dragatzeko eta hornidura egiteko erabiltzen diren itsasontziei, bai eta atoian eramateko, amarratzeko, praktikajea egiteko eta portuko bestelako zerbitzuak emateko erabiltzen direnei ere, hurrenez hurren 4,67 eta 2,33ko balioak aplikatuko zaizkie l. gunean sartzen diren egunetik.

**ATRAKALEKUA EDO AINGURALEKUA EZ ERABILTZEA**

Itsasontziak dike lehor edo flotatzailera, harmailara edo hondartze-instalaziora abiatzen edo bertatik irteten direnean, edo oro har, atrakaleku edo ainguralekurik erabili gabe portura sartzen direnean.

Kasu guztietan, B oinarritzko zenbatekoa aplikatuko da (1,43 €).

Itsas zabalean bere propulsiarako erregai bezala gas natural erabiltzen duten itsasontziei, baita portuko egonaldian gas natural edo motorrak elikatzeke kaitik hornitutako argi indarra erabiltzen dutenei 0,5eko koefizientea ezarriko zaie ezarritakoekin bateragarri izanik.

	Gas natural edo kaitik hornitutako argi indarra
$(GT/100) \times 3,575$	$(GT/100) \times 1,7875$

**KOEFIZIENTEAK GELDIALDI-KOPURUAREN ARABERA APLIKATZEA**

Trafiko-mota jakin bati itsas zerbitzua ematen dioten eta ontzi-konpainia edo itsas bidaien konpainia bakar batek kudeatutako itsasontziek (edo ustiapena partekatzeke akordioen bidez konpainia-multzo batek ustiatutakoek, baldin eta itsas zerbitzu erregular batean badihardute), portu berean eta urte naturalean egindako geldialdi-kopuruaren arabera, tasaren kuota biderkatu egingo da hurrengo koefizienteekin, subjektu pasiboak aurrez eskatzen badu:

- 1. geldialditik 12. geldialdira: 1,00.
- 13. geldialditik 26. geldialdira: 0,95.
- 27. geldialditik 52. geldialdira: 0,85.
- 53. geldialditik 104. geldialdira: 0,75.
- 105. geldialditik 156. geldialdira: 0,65.
- 157. geldialditik 312. geldialdira: 0,55.
- 313. geldialditik 365. geldialdira: 0,45.
- 366. geldialditik aurrera: 0,35.

Itsas zerbitzua erregularra baldin bada, aurreko koefizienteen zenbatekoari 5 ehunen kenduko zaizkio.

Itsasontzien ustiapena partekatzeke akordioak egin dituzten ontzi-konpainiek modu sinesgarrian egiaztatu beharko dute hori, dagokien Portuko Agintaritzaren aurrean. Halakotzat joko dira ibilbideak eta datak batera antolatzen dituztenak, eta itsasontzien, eta hala badagokio, garraio-ekipamenduen eta azpiegituren erabilera partekatua egiten dutenak. Kasu honetan ere, zerbitzua orokorrean eta balizko erabiltzaileei publikitatea eskainiz ematen dela egiaztatu beharko da.

Trafiko-mota jakin bati emandako itsas zerbitzuaren eta itsas zerbitzu erregularren kalifikazioa Portuko Agintaritzak egingo du, interesdunak alde aurretik eskatuta. Interesdunak honako informazioa aurkeztu beharko du:

## 2019ko Portu Tasak eta Tarifak

- a) Zerbitzua hasieran emango duten itsasontzien zerrenda, bakoitzaren izena eta IMO zenbakia zehaztuz.
- b) Zerbitzuan sartuko diren portuak.
- c) Zerbitzua jasoko duten bidaiariak, salgaiak, garraio-elementuak eta karga-unitateak.
- d) Urte naturalean egingo den geldialdi-kopurua, eta zerbitzua emateko aurreikusitako egunak.

Eskaera trafiko-mota jakin bati itsas zerbitzua erregulariki ematen dion eta itsasontzien ustiapena partekatzeak akordioak egin dituen konpainia-multzo batek egin badu, eskabidearekin batera akordio hori frogatzen duen baterako aitortpena aurkeztu beharko da. Aitortpena itsas zerbitzu erregularra ematen duten ontzi-konpainia edo itsas bidaien konpainia guztiek sinatu beharko dute, edota ontzi-kontsignatario guztiek. Eskaerak itsas zerbitzua, edo itsas zerbitzu erregularra, ematen duen itsasontziak lehen geldialdia egin aurretik aurkeztu beharko dira, eta urtero berritu beharko dira.

Itsas zerbitzu batean edo trafiko-mota jakin bati emandako itsas zerbitzu batean edozein aldaketa egiteko, aurrez Portuko Agintaritzari jakinarazi beharko zaio.

### HOBARIAK

#### 1. Ingurumen-jardunbide hobeak sustatzeko: ehuneko 5.

Itsasontziek ingurumena errespetatzeko zenbait eskakizun betetzen dituztela egiaztatzen dutenean, nazioarteko arau eta hitzarmenek ezartzen dituztenak hobetuz, eta gainera, ontzi-konpainiak edo, hala badagokio, itsasontziaren armadoreak Portuko Agintaritzarekin Hitzarmena sinatu duenean itsasontziek portuan egiten dituzten lanekin eta haien egonaldiarekin loturiko ingurumen-jardunbide egokiei buruz.

Hitzarmen horrek argibide tekniko eta operatibo batzuk jaso beharko ditu, Estatuko Portuek onetsitako ingurumen-jardunbide egokien gidaliburuetan oinarrituak, eta argibide horiek betetzen direla ziurtatu beharko da ingurumena kudeatzeko sistema baten bidez. Itsasontziak gai horri buruzko nazioarteko arauak eta hitzarmenak betetzen dituela egiaztatuta beharko da, International Accreditation Forum-eko erakundeek horretarako izendatutako egiaztapen-erakundeen bidez. Portuko Agintaritzak aipatu den Hitzarmena betetzen dela ziurtatu beharko du.

#### 2. Emandako zerbitzuen kalitatea hobetzeko: ehuneko 5.

Ontzi-konpainiak edo, arrantza-ontzien kasuan, armadoreak, itsasontziak portuan egiten dituen lan guztiei buruzko zerbitzu-ziurtagiria indarrean duenean, Estatuko Portuek zerbitzuen kalitateko onartutako erreferentzietan oinarritua, edo hala badagokio, Portuko Agintaritzak erreferentzia horiek garatzeko onartu dituen erreferentzia espezifikoetan oinarritua. Zerbitzu-ziurtagiria UNE-EN-45011 arauaren edo haren ordezkorearen arabera ENACek egiaztatutako erakunde batek luzatu behar du, edota arau horren eskakizunak betetzen dituen ziurtapen-sistema daukan erakunde batek.

Hobari hauek ez zaizkio aplikatuko atrakalekuko egonaldi eta erabilera luzeari.

### HOBARIA (2018 AURREKONTUEN LEGEA)

Produktu siderurgiko luzeak merkantzia konbentzional bezala, ro-ro eta muga-zergen 7207, 7213, 7214 eta 7216 kodeak ezik: %10eko hobaria 150 eskalatara iristen badira. Hobariaren portzentajea lehenengo eskalatik aplikatuko da, 150 egiten badira. %20eko hobaria 200 eskalatara iristen badira. Hobariaren portzentajea lehenengo eskalatik aplikatuko da, 200 egiten badira

Kontainerrak: %40eko hobaria izango dute lehenengo eskalatik, ro-ro itsasontziak izan ezik. 50 TEU baino gehiago mugitzen badira aplikatuko da hobaria.

Itsas bidai turistikoak: %40ko hobaria lehen eskalatik.

**2019ko Portu Tasak eta Tarifak**

Car-carrier itsasontziak: %10eko hobaria eskala guztietan. Hobaria ibilgailuak garraiatzen dituzten Car-carrier itsasontziei aplikatuko zaie, bestelako merkantziak ere garraiatu arren



**2019ko Portu Tasak eta Tarifak**

**BIDAIARIEN TASA (T-2)**

1. Tasa honen zergapeko egitatea hauxe da: bidaiariak, beren bagajeak eta, egokia denean, baita horiek ontziratzen edo lehorreratzen dituzten bidaiari-erregimeneko ibilgailuek ere, atrakalekuak, lurreko sarbideak, errepideak eta portuko beste instalazio finko batzuk erabiltzea. Tasa honen zergapeko egitatea da, halaber, dagokion Portuko Agintaritzarenak diren eta erabiltzaileek baimenik eskatu beharrik gabe jasotzen dituzten zerbitzu komunak ematea, jabari publikoko aipatu elementuekin lotuak.

Tasa honek ez dio eragiten ontziratze- eta lehorreratze-lanetarako makina eta elementu mekaniko mugikorren erabilerari. Makina horiengatik dagokion tarifa ordaindu beharko da, egokia denean.

2. Subjektu pasiboak izango dira, zergadun diren neurrian eta solidarioki, ontzi-ustiatzailea eta itsasontziaren kapitaina. Itsasontzia kontsignatuta baldin badago, zergadunen ordeko subjektu pasiboa bidaiariak eta ibilgailuak bidaiari-erregimenean daramatzan ontziaren kontsignataria izango da. Emakidan edo baimenarekin jasotako atrakalekuetan eta itsas geltokietan, emakidaduna edo baimenduna izango da zergadunen ordeko subjektu pasiboa.

Manu honetan izendatutako ordeko guztiak solidarioki behartuta geratuko dira zerga-betebeharraren ondoriozko eskakizun material eta formalak betetzera, Portuko Agintaritzak lehenik emakidaduna edo baimendunarengana jotzeari kalterik egin gabe. Ordezkoek ez badituzte beren betebeharrak betetzen, eta bereziki, ez badute tasa ordaintzen, Portuko Agintaritzak zergadunei eskatu ahalko die berau ordaintzeko. Hori guztia, ordezkoez izan ditzaketen erantzukizunei kalterik egin gabe.

3. Tasa hau bidaiarien eta, dagokionean, ibilgailuen ontziratze-, lehorreratze- edo igarotze-lanak hasten direnean sortuko da.

4. Bidaiari bakoitzari eta bidaiari-erregimeneko ibilgailu bakoitzari aplikatu beharreko tasaren kuota osoa kalkulatzeko, P oinarriko zenbatekoari (3,23 €), bidaiarien tasaren koefiziente zuzentzailea aplikatuko zaio (0,95), eta jarraian, zenbateko hori dagozkion koefizienteekin biderkatuko da.

Unitateak x P x KZ x koefizienteak

a) Emakidan edo baimenarekin jaso ez diren atrakalekuetan eta itsas geltokietan:

1. Orokorrean, euroak bidaiari edo ibilgailu bakoitzeko:

- Garraiatzen, ontziratzen edo lehorreratzen den bidaiaria, Shengen eremuko herrialdeen artean: 2,301375 €.
- Garraiatzen, ontziratzen edo lehorreratzen den bidaiaria, Shengen eremukoak ez diren herrialdeen artean: 3,0685 €.
- Hasierako edo amaierako portuan itsas bidaia turistikoko erregimenean ontziratzen edo lehorreratzen den bidaiaria, ontziratzen edo lehorreratzen den egunean aplikatu beharrekoa: 3,6822 €.
- Hasierako edo amaierako portuan itsas bidaia turistikoko erregimenean dagoen eta portuan egun bat baino gehiago igarotzen duen bidaiaria, ontziratzen edo lehorreratzen den eguna izan ezik: 2,301375 €. Kasu honetan, tasaren kuota osoa bidaiari bakoitzeko aplikatuko da, eta ontziratze osteko edo lehorreratze aurreko egunean portuan emandako egun edo frakzio bakoitzeko.
- Itsas bidaia turistikoko iragaitzako bidaiaria: 2,301375 €. Kasu honetan, tasaren kuota osoa bidaiari bakoitzeko eta portuan emandako egun edo frakzio bakoitzeko aplikatuko da.
- Bidaiari-erregimenean ontziratzen edo lehorreratzen diren motozikletak eta 2 gurpileko ibilgailuak: 3,98905 €.
- Bidaiari-erregimenean ontziratzen edo lehorreratzen diren turismoak eta antzeko ibilgailuak, atoian eramandako elementuak barne, 5 metrorainoko luzerakoak: 8,89865 €.
- Bidaiari-erregimenean ontziratzen edo lehorreratzen diren turismoak eta antzeko

**2019ko Portu Tasak eta Tarifak**

ibilgailuak, atoian eramandako elementuak barne, 5 metrotik gorako luzerakoak: 17,7973 €.

- Bidaiari-erregimenean ontziratzen edo lehorreratzen diren autokarrak eta taldeko garraio gainerako ibilgailuak: 47,8686 €.

Salgaiaren tasa aplikatu behar zaien garraio-elementuen gidariek ez dute bidaiarien tasa ordaindu beharrik izango.

2. Nabigazioa portu baten zerbitzuguneko uretan soilik egiten denean, bidaiari edo ibilgailu bakoitzeko:

- Ontziratzen edo lehorreratzen den bidaiaria: 0,06137 €.
- Ontziratzen edo lehorreratzen diren motozikletak eta 2 gurpileko ibilgailuak: 1,2274 €.
- Ontziratzen edo lehorreratzen diren turismoak eta antzeko ibilgailuak, atoian eramandako elementuak barne, 5 metrorainoko luzerakoak: 2,76165 €.
- Ontziratzen edo lehorreratzen diren turismoak eta antzeko ibilgailuak, atoian eramandako elementuak barne, 5 metrotik gorako luzerakoak: 5,5233 €.
- Ontziratzen edo lehorreratzen diren autokarrak eta taldeko garraio gainerako ibilgailuak: 9,2055 €.

3. Tokiko bidaia turistikoa edo itsas bidaia egiten ari diren bidaiariak ontziratuta eta lehorreratzeagatik, bidaiari edo ibilgailu bakoitzeko:

- Bidaia portuko zerbitzugunearen barruan soilik egiten ez bada: 0,6137 €.
- Bidaia portuko zerbitzugunearen barruan soilik egiten bada: 0,12274 €.

b) Emakidan edo baimenarekin jasotako atrakalekuetan eta itsas geltokietan, koefizienteak a) idatz-zatian adierazitakoen %50 izango dira.

c) Emakidan edo baimenarekin jasotako itsas geltokietan, baldin eta atrakalekuak ez badira emakidan edo baimenarekin jaso, koefizienteak a) idatz-zatian adierazitakoen %75 izango dira.

d) Itsas zerbitzu erregularretako itsasontzietan eramaten diren garraio-erregimeneko bidaiarien eta bidaiari-erregimeneko ibilgailuen kasuan, koefizienteak a) 1.) idatz-zatian adierazitakoen %80 izango dira, edo b) eta c) idatz-zatiak aplikatuzetik ondorioztatzen direnen %80.

5. Nabigazioa portu baten zerbitzuguneko uretan edo itsasadar edo badien barruko uretan soilik egiten denean, edota itsasontzia tokiko bidaia turistikoa egiten ari denean, estimazio erraztuaren erregimenean eskatu ahal izango da tasa, betiere, subjektu pasiboak berriaz uko egiten ez badu. Zerga-kuota ezartzeko, azken bi urteetako datu estatistikoak hartuko dira kontuan; eta aldi behin likidazio orokorra egingo da, zenbatetsitako trafikoari dagokion zenbatekoan. Erregimen honetan sartzan direnek %30eko hobaria izango dute zerga-kuotaren zenbatekoan.

**HOBARIA (2018 AURREKONTUEN LEGEA)**

Itsas bidai turistikoak: %40ko hobaria lehen eskalatik.

**SALGAIAREN TASA (T-3)**

1. Tasa honen zergapeko egitatea hauxe da: itsasoz sartzen edo irteten diren salgaiak, edota ontziz aldatzen diren edo itsasotik edo lurrez joan-etorrian garraiatutako salgaiak eta haien garraio-elementuek, atrakatzeko instalazioak, zamalanekin loturiko manipulazio-eremuak, lurreko sarbide nahiz errepede eta trenbideak eta portuko beste instalazio batzuk erabiltzea, Portuko Agintaritzak igarotze-gune gisa prestatu dituen zerbitzuguneko eremuetan egotea barne, honako denbora-muga hauekin:

Salgaiak itsasoz sartzeko edo ateratzeko lanetan, eta baita itsas igarotzan eta barne-trafikoan ere: lau ordu portuko zerbitzugunean sartzen direnetik edo lehorreratzen direnetik, dagokionaren arabera, baldin eta itsas garraioan salgaiak eta garraio-elementuak ibilgailu gurgildun batek eraman baditu edo eraman behar baditu, eta 48 ordu gainerako kasuetan.

Lehorreko igarotze-lanetan: lau ordu portuko zerbitzugunean sartzen direnetik.

Tasa honen ondorioetarako, lehorreko igarotza egiten duten salgaitzat joko dira lurrez eta itsas bidea inoiz erabili gabe portuko zerbitzugunera sartzen direnak, eraldaketa-prozesuak edo balio erantsikoak burutzeko asmoz, eta prozesu horiek amaitu ondoren gune horretatik lurrez ateratzen direnak, beren helmuga edo jatorria portuko zerbitzugunean kokaturiko Jarduera Logistikoko Eremuak, biltegiatze-eremuak edo ontziak eraikitze edo konpontzeko instalazioak direnean izan ezik. Tasa honen zergapeko egitatea da, halaber, dagokion Portuko Agintaritzarenak diren eta erabiltzaileek baimenik eskatu beharrik gabe jasotzen dituzten zerbitzu komunak ematea, jabari publikoko aipatu elementuekin lotuak.

2. Tasaren subjektu pasiboak hauek dira:

a) Itsasoz sartzen edo ateratzen diren, edo ontziz aldatzen diren edota itsasotik joan-etorrian dabiltzan salgaien eta haien garraio-elementuen kasuan: subjektu pasiboak izango dira, zergadun diren neurrian eta solidarioki, ontzi-ustiatzailea, salgaiaren jabea eta itsasontziaren kapitaina. Itsasontzia edo salgaia eta bere garraio-elementuak kontsignatuta baldin badaude, zergadunen ordeko subjektu pasiboak izango dira ontziaren kontsignataria edo salgaia ordezkatzeko duen kontsignataria, garraio-kudeatzailea edo logistikako operadorea. Emakidan edo baimenarekin jaso diren eta salgaiak manipulatzeko diren terminaletan eta bestelako instalazioetan, ordeko subjektu pasiboa emakidaduna edo baimenduna izango da.

b) Lehorreko igarotza egiten duten edo itsas bidea erabili gabe portuko zerbitzugunetik irteten edo bertara sartzen diren salgaien eta haien garraio-elementuen kasuan, subjektu pasiboa salgaiaren jabea izango da, edo baldin badago, salgaia ordezkatzeko duen garraio-kudeatzailea edo logistikako operadorea. Salgaiaren helmuga emakidan edo baimenarekin jasotako instalazio bat baldin bada, ordeko subjektu pasiboa salgaia bidaltzen edo jasotzen duen emakidaduna edo baimenduna izango da.

Manu honetan izendatutako ordeko guztiak solidarioki behartuta geratuko dira zerga-betebeharraren ondoriozko eskakizun material eta formalak betetzera, Portuko Agintaritzak lehenik emakidaduna edo baimendunarengana jotzeari kalterik egin gabe. Ordezkoek ez badituzte beren betebeharrak betetzen, eta bereziki, ez badute tasa ordaintzen, Portuko Agintaritzak zergadunei eskatu ahalko die berau ordaintzeko. Hori guztia, ordekoek izan ditzaketan erantzukizunei kalterik egin gabe.

3. Tasa hau salgaia portuko zerbitzugunetik igarotzen hasten denean sortuko da.

4. Tasaren kuota osoa honako hau izango da:

Honako hauek bereizten dira:

- Emakidan edo baimenarekin jaso ez diren salgaien itsas terminalak: E/Bik gabe.
- Emakidan edo baimenarekin jaso diren salgaien itsas terminalak, atrakalekua emakidan edo baimenarekin jaso dutenak: E/Barekin, atrakalekua E/Barekin.

**2019ko Portu Tasak eta Tarifak**

- Emakidan edo baimenarekin jaso diren salgaien itsas terminalak, atrakalekua emakidan edo baimenarekin jaso ez dutenak: E/Barekin, atrakalekurik gabe.

a) Lanen helburu bakarra salgaiak eta garraio-elementuak itsasoz sartzea edo ateratzea denean, kuota osoa honako erregimen hauetako baten arabera kalkulatu da:

**ESTIMAZIO ERRAZTUAREN ERREGIMENA**

*Subjektu pasiboak hala eskatzen badu, itsasontzi berean egindako ontziratze- edo lehorreratze-lan berari dagokion eta garraio-elementuetan garraiatu den karga osoari aplikatuko zaio erregimen hau.*

Salgai gisa garraiatzen diren ibilgailuentzat eta ondoren azaltzen diren garraio-elementuetan garraiatutako salgaientzat, kuota osoa honela kalkulatu da: ontziratzen edo lehorreratzen den garraio-elementu bakoitzari, edo salgai gisa garraiatzen den ibilgailu bakoitzari, hurrengo taulan adierazten diren koefizienteak M oinarritzko zenbatekoarekin (2,65 €) eta 1,15 koefiziente zuzentzailearekin biderkatzearen emaitza aplikatuz.

$$\text{Unitateak} \times M \times KZ \times \text{koefizienteak}$$

Kargatutako edo deskargatutako garraio-elementu mota	Koefizientea
Edukiontzia <= 20' (dagokionean, 6,10 metroraingoko garraio-plataforma bame)	10,00
Ibilgailu zurruna, kutxa edo plataformaduna, 6,10 metroraingokoa	10,00
Edukiontzia <= 20' (dagokionean, 6,10 metroraingoko garraio-plataforma bame)	15,00
Erdi-atoi eta atoa	15,00
Ibilgailu zurruna, kutxa edo plataformaduna, 6,10 metro baino gehiagokoa	15,00
16,5 metroko guztizko luzerako kutxa edo plataformadun ibilgailu artikulatua	15,00
Atoidun ibilgailu zurruna (errepide-trena)	25,00
2500 kg-ra arteko ibilgailua, salgai gisa garraiatzen dena	0,50
2500 kg-tik gorako ibilgailua, salgai gisa garraiatzen dena	2,00

**Hutsik doazen garraio-elementuei, salgai gisa garraiatzen diren ibilgailuei izan ezik, salgai-multzoen erregimenari dagokion idatz-zafian ezarritako kuota aplikatuko zaie.**

**SALGAI-MULTZOEN ERREGIMENA**

Tasaren kuota osoa kalkulatzeko, hurrengo kontzeptuetatik (hala badagokio) ateratzen diren zenbatekoak batu behar dira:

$$\text{Tonak} \times M \times KZ \times \text{koefizienteak} + (\text{Unitatea edo tona}) \times M \times KZ \times \text{koefizienteak}$$

Ontziratutako edo lehorreratutako karga-tona bakoitzari, M oinarritzko zenbatekoa (2,65 €) 1,15 koefiziente zuzentzailearekin eta hurrengo taulan azaltzen diren koefizienteekin biderkatzetik ateratzen den zenbatekoa aplikatu behar zaio, salgaiari dagokion multzoaren arabera:

$$\text{Tonak} \times M \times KZ \times \text{koefizienteak}$$

Salgai-multzoa	Koefizientea
Lehena	0,16
Bigarrena	0,27
Hirugarrena	0,43
Laugarrena	0,72
Bosgarrena	1,00

**2019ko Portu Tasak eta Tarifak**

Hala badagokio, garraiatzean salgaiak gordetzeko erabiltzen diren ontzi, enbalaje, edukiontzi, zisterna edo bestelako edukiontzi edo garraio-elementuen unitate edo tona bakoitzari –berdin dio galdutzat edo galkortzat jo den ala ez-, eta, era berean, lurreko garraio-elementuak izanik, ontziratzen edo lehorreratzen diren ibilgailu, atoi eta erdi-atoiei –hutsik nahiz salgaiz beterik egon-, M oinarritzko zenbatekoa (2,65 €) 1,15 koefiziente zuzentzailearekin eta hurrengo taulan azaltzen diren koefizienteekin biderkatzearen emaitza aplikatuko zaie:

(Unitatea edo tona) x M x KZ x koefizienteak

Kargatutako edo deskargatutako garraio-elementu mota	Koefizientea
Edukiontzia <= 20' (dagokionean, 6,10 metrorainoko garraio-plataforma bane) (unitateko)	0,90
Ibilgailu zurruna, kutxa edo plataformaduna, 6,10 metrorainokoa (unitateko)	0,90
6,10 metrorainoko plataforma (unitateko)	0,90
> 20' kontainerra (6,10 metro baino gehiagoko garraio-plataforma bane) (unitateko)	1,80
Erdi-atoi eta atoi (unitateko)	1,80
Ibilgailu zurruna, kutxa edo plataformaduna, 6,10 metro baino gehiagokoa (unitateko)	1,80
16,5 metroko guztizko luzerako kutxa edo plataformadun ibilgailu artikulatua (unitateko)	1,80
6,10 metro baino gehiagoko plataforma (unitateko)	1,80
Trakzio-buruak (unitateko)	0,60
Atoidun ibilgailu zurruna (errepide-trena) (unitateko)	2,90
Aurreko kontzeptuetan sartzen ez diren beste batzuk (tonako)	0,50

b) Itsasotik joan-etorrian dabiltzanean, salgaiak eta haien garraio-elementuak erregimen horretan sartu badira, igarotzako salgaiaren tasaren kuota osoa idatz-zati honetako a) letran adierazitakoaren arabera kalkulatu da, emakidan eta baimenarekin jaso ez diren salgaien itsas terminalei dagokienez. Ondorio hauetarako, igarotzako lanak lehorreratzeko lantzat joko dira.

**Itsas Igarotza:** salgaiak edo garraio-elementuak itsasoz lekualdatzeko eragiketa; salgaiak ontzi batetik kaira deskargatzen dira, eta gero beste ontzi batean kargatzen dira, edo ontzi berean baina beste galdialdi batean, portuko zerbitzuagunetik atera gabe.

Deskargan salgaia deklaratu duen subjektu pasiboari likidatuko zaio tasa hau. Deskargatzeko unean salgaia ez baldin bada erregimen horretan deklaratu, a) letran ontziratze- eta lehorreratze-lan bakoitzarentzat ezarrita dagoena beteko da.

Emakidan edo baimenarekin jaso diren salgaien itsas terminalean, honako zenbateko hauek aplikatuko dira:

- Atrakalekua emakidan edo baimenarekin jaso bada: 4. idatz-zatiko b) letran ezarritako kuotaren %25.
- Atrakalekua emakidan edo baimenarekin jaso ez bada: 4. idatz-zatiko b) letran ezarritako kuotaren %80.

c) Salgaiak eta garraio-elementuak ontziz aldatzen direnean, kuota osoa honako hau izango da, emakidan edo baimenarekin jaso ez diren salgaien itsas terminalean:

1. Atrakatuta dauden itsasontzien artean: idatz-zati honetako a) letran ezarritako kuotaren %50. Ondorio hauetarako, salgaiak eta garraio-elementuak ontziz aldatzeko lanak lehorreratze-lanen baliokidetzat joko dira.
2. Atrakatuta dagoen beste itsasontzi bati alboa atxikita duten itsasontzien artean, eta ainguratutako ontzien artean: idatz-zati honetako a) letran ezarritako kuotaren %30. Ondorio hauetarako, salgaiak eta garraio-elementuak ontziz aldatzeko lanak lehorreratze-lanen baliokidetzat joko dira.

**Ontzi-aldaketa:** salgaiak zuzenean ontzi batetik beste batera aldatzeko eragiketa; salgaiak ez dira kaletan uzten, eta bi ontziak leku berean egoten dira eragiketak dirauen artean.

## 2019ko Portu Tasak eta Tarifak

Deskargan salgaia deklaratu duen subjektu pasiboari likidatuko zaio tasa hau. Deskargatzeko unean salgaia ez baldin bada erregimen horretan deklaratu, a) letran ontziratze- eta lehorreratze-lan bakoitzarentzat ezarrita dagoena beteko da.

Emakidan edo baimenarekin jaso diren salgaien itsas terminaletan, honako zenbateko hauek aplikatuko dira:

- Atrakalekua emakidan edo baimenarekin jaso bada: 4. idatz-zatiko c) letran ezarritako kuotaren %20, baldin eta ontzietako batek, gutxienez, emakidan edo baimenarekin jasotako atrakalekua okupatzen badu.
- Atrakalekua emakidan edo baimenarekin jaso ez bada: 4. idatz-zatiko c) letran ezarritako kuotaren %80.

d) Salgaien eta garraio-elementuen lehorreko igarotze-lanetan, idatz-zati honetako a) letran ezarritako kuotaren %50 aplikatuko zaio portuko zerbitzugunean sartzen den salgai edo garraio-elementuari.

Lehorreko igarotze-lanetan, ez da beharrezkoa izango portuko zerbitzugunean sartzen diren salgaien eta garraio-elementuen helmuga salgaien itsas terminal bat izatea.

**Lehorreko igarotzea:** salgaiak edo garraio-elementuak lehorrean lekualdatzeko eragiketa; salgaiak edo garraio-elementuak lurrez sartzen dira portuko zerbitzugunean, eta lurrez irteten dira bertatik.

Emakidan edo baimenarekin jaso diren salgaien itsas terminalerako lehorreko igarotze-lanetan, 4. idatz-zatiko d) letran ezarritako zenbatekoaren %40 aplikatuko da, baldin eta zerbitzugunean sartzen diren salgaien eta garraio-elementuen helmuga den instalazioa emakidan edo baimenarekin jaso bada.

### BEHERAPENAK

Jarraian adierazten diren kasuetan, 4. idatz-zatian ezarritakoaren arabera lortutako zenbatekoari honako koefiziente hauek aplikatuko zaizkio:

- a) Itsas igarotzea egiten ari diren salgaiari eta haien garraio-elementuei: 0,25.
- b) Itsasoz sartzen edo ateratzen diren salgaiari, haien garraio-elementuei edo bide laburreko itsas garraioko zerbitzu erregular bateko ontzietan garraiatutako karga-unitateei:0,80. Salgaien zamlan gorpil bidez egiten dituzten itsasontzien kasuan (ro-ro, ro-pax, con-ro eta ferry motakoak), koefizientea 0,60ra murriztuko da. Itsasoz sartzen diren salgaien eta garraio-elementuen kasuan, koefiziente horiek ez zaizkie aplikatuko ontziratutako diren azken portuan itsas igarotzeko erregimenean egon diren horiei. Aldiz, itsasoz irteten diren salgaien eta garraio-elementuen kasuan, koefiziente horiek ez zaizkie aplikatuko lehorreratutako diren lehen portuan itsas igarotzeko erregimenean egongo diren horiei.
- c) Portuko zerbitzugunera trenbidez sartu edo bertatik trenbidez irtenda, ontziratzen edo lehorreratzen diren salgaiari eta haien garraio-elementuei: 0,75.

### HOBARIAK (2018 AURREKONTUEN LEGEA)

- Siderurgiko produktu luzeak merkantzia konbentzional bezala, ro-ro, muga-zergen 7207, 7213, 7214 y 7216 kodeak izan ezik: %20 lehenengo tonatik; %25 620.000 tonatara iristen bada; %35 650.000 tonatara iristen bada; %40 700.000 tonatara iristen bada. Hobariaren ehunekoa lehenengo tonatik aplikatuko da urtean lortutako trafikoaren atalasearen arabera. %25, %35 edo %40ko hobariaren ehunekoa urtea amaitzean gauzatuko dira.
- Siderurgiko produktu planoak merkantzia konbentzional bezala, ro-ro, muga-zergen 7208Atik 7212Brako kodeak izan ezik: %15 lehenengo tonatik; %25 200.000 tonatara iristen bada; %30 250.000 tonatara iristen bada. Hobariaren ehunekoa lehenengo tonatik aplikatuko da urtean azkeneko bezeroarentzat (igorlea edo hartzailea) lortutako trafikoaren atalasearen arabera).

**2019ko Portu Tasak eta Tarifak**

- Kontainerrak: %40a lehen tonatik.
- Zementua soltean, clinkerra, magnesita, fosfatoa, ongarria, potasa, zereala, kaolina, petrolio kokea eta simaurra. 1001etik 1008ra, 2507, 2519, 2523B, 3101etik 3105era, 2713A eta 2713B muga-zerga kodeak: %10 lehenengo tonatik. Hobari hau merkantzia soltean ekarri eta kaian biltegiatzen ez bada aplikatuko da soilik.

## 2019ko Portu Tasak eta Tarifak

### ARRANTZA FRESKOAREN TASA (T-4)

1. Tasa honen zergapeko egitatea hauxe da: jardunean dauden arrantza-ontziek portuko zerbitzuguneko urak eta esleitu zaien atrakatzeko edo ainguratzeko postura itsasoz sartzea ahalbidetzen duten portuko obra eta instalazioak erabiltzea, eta bertan egotea. Zergapeko egitatea da, era berean, portu-esparrura itsasoz, dela arrantza-ontzian dela merkataritza-ontzian, edota lurrez, sartzen den arrantza freskoak, arrantza hoztuak eta bere produktuek atrakatzeko instalazioak, manipulazio eta salmentarako eremuak, sarbideak, errepideak, aparkatzeko guneak eta portuko beste instalazio batzuk erabiltzea. Tasa honen zergapeko egitatea da, halaber, dagokion Portuko Agintaritzarenak diren eta erabiltzaileek baimenik eskatu beharrik gabe jasotzen dituzten zerbitzu komunak ematea, jabari publikoko aipatu elementuekin lotuak. Tasa honek ez dio eragiten ontziratze- eta lehorreratze-lanetarako, ontziz aldatzeko edo portuko zerbitzugunearen barruan arrantza horizontalki mugitzeko beharrezkoak diren makina, manipulazio-ekipamendu eta elementu mekaniko mugikorren erabilerari. Makina horientatik dagokion tarifa ordaindu beharko da, egokia denean.

Tasa hau ordainduz gero, arrantza-ontziak eskubidea izango du portuan hilabetez egoteko, bertan sartzen den unetik aurrera, Portuko Agintaritzak adierazten duen posizioan.

Epe hori amaitzen denean, jardunean ez dauden itsasontzientzat (arrantza-ontziak eta tresna flotatzaileak barne) aurreikusten den tasa sortuko da, itsasontziaren tasari buruzko artikuluan jasota dagoena.

Ekaitzak, geldialdi biologikoak, debekualdiak edo lizentziarik eza direla eta, itsasontziak portuan geratu behar badu, Portuko Agintaritzak adierazitako epea luzatuko du, gehienez ere 6 hilabetera arte. Epe hori amaitzen denean, eta aipatu diren inguruabarrek dirauten artean, azken deskarga portuan egin duten eta geldialdi biologikoan nahiz debekualdian dauden edo lizentziarik ez duten arrantza-ontzientzat aurreikusten den itsasontziaren tasa sortuko da, itsasontziaren tasari buruzko artikuluan jasota dagoena. Inguruabar horiek berariaz eta banan-banan egiaztatu beharko dira, agintaritza eskudunak luzatutako agirien bidez. Inguruabar horiek desagertzen badira edo egiaztatu ezin badira, aurreko paragrafoan adierazi den itsasontziaren tasa sortuko da.

Tasa hau ez zaie aplikatuko portuan arrantza freskoa, arrantza hoztua edo bere produktuak deskargatzen ez dituzten arrantza-ontziei. Kasu horretan, portuan sartzen diren unetik dagokien itsasontziaren tasa sortuko da.

2. Tasaren subjektu pasiboak hauek dira:

a) Arrantza freskoa portura itsasoz ekartzen baldin bada, arrantza-ontziaren armadorea izango da subjektu pasiboa. Merkataritza-ontzien kasuan, arrantzaren jabea izango da subjektu pasiboa. Arrantza portuan saltzen bada, jabearen izenean lehen salmenta egiten duena ere ordezkotako subjektu pasiboa izango da. Emakidan edo baimenarekin jasotako lonjetan, zergadunaren ordezkotako subjektu pasiboa emakidaduna edo baimenduna izango da.

b) Arrantza freskoa portura lurrez ekartzen baldin bada, arrantzaren jabea izango da subjektu pasiboa. Jabearen izenean arrantza saltzen duena ordezkotako subjektu pasiboa izango da. Emakidan edo baimenarekin jasotako lonjetan, zergadunaren ordezkotako subjektu pasiboa emakidaduna edo baimenduna izango da.

Manu honetan izendatutako ordezkotako guztiak solidarioki behartuta geratuko dira zerga-betebeharraren ondoriozko eskakizun material eta formalak betetzera, Portuko Agintaritzak lehenik emakidaduna edo baimendunarengana jotzeari kalterik egin gabe. Ordezkoek ez badituzte beren betebeharrak betetzen, eta bereziki, ez badute tasa ordaintzen, Portuko Agintaritzak zergadunari eskatu ahaliko die berau ordaintzeko. Hori guztia, ordezkotako izan ditzaketen erantzukizunei kalterik egin gabe.

Tasa honen subjektu pasiboak arrantzaren erosleari jasanaraziko dio bere zenbatekoa. Zenbateko hori faktura edo antzeko agiri baten bidez jasanaraziko da, esaldi hau jarritz: "Arrantza freskoaren tasa, ...tan finkatua".

Kuotak jasanaraztea ez da bidezkoa izango ikuskapen-akten ondorioa diren likidazioen kasuan.



**2019ko Portu Tasak eta Tarifak**

3. Tasa hau arrantza-ontzia, arrantza freskoa, arrantza hoztua edo bere produktuak portuko zerbitzugunetik igarotzen hasten direnean sortuko da.

4. Tasa honen zerga-oinarria arrantzaren edo bere produktuen merkatu-balioa izango da. Balio hori ondoko irizpideen arabera zehaztuko da:

- a) Arraina portuko lonjan enkantean jartzean lortutako salmenta-prezioa.
- b) Arraina portuko lonjan enkantean jarri edo saldu ez bada, egun horretan espezie beraren enkanteetan lortutako batez besteko balioa hartuko da kontuan; edo bestela, espezie bera enkantean jarri den azkeneko egunean lortutakoa. Subsidiarioki, arrainak aurreko astean izandako batez besteko merkatu-prezioa erabiliko da, gai horretan eskuduna den organoak egiaztatu ondoren.
- c) Prezioa ezin bada finkatu aurreko paragrafoetan azaldutako moduan, Portuko Agintaritzak zehaztuko du merkatuko ohiko baldintzak kontuan izanik. 2019ko ekitaldirako prezioak zehazteko, 2017ko urria eta 2018ko urria bitartean egindako enkanteetako lehen salmentaren batez besteko balioa hartu du kontuan Pasaiaiko Portuko Agintaritzak. Finkatutako zenbatekoa **3,77 € kiloko** da arrainarentzat, eta horren bikoitza, hau da, **7,54 € kiloko**, itsaskientzat.

5. Karga-tasa honako hau izango da:

a) Lonja erabiliz, emakidarik edo baimenik gabe:

- 1º. Itsasoz deskargatutako arrainari: oinarriaren balioaren %2,2.
- 2º. Portu-esparrura lurrez iristen den arrainari: oinarriaren balioaren %1,8.

b) Lonja erabili gabe:

- 1º. Itsasoz deskargatutako arrainari: oinarriaren balioaren %1,8.
- 2º. Portu-esparrura lurrez iristen den arrainari: oinarriaren balioaren %1,5.

c) Lonja erabiliz, emakidarekin edo baimenarekin:

- 1º. Itsasoz deskargatutako arrainari: oinarriaren balioaren %0,4.
- 2º. Portu-esparrura lurrez iristen den arrainari: oinarriaren balioaren %0,3.

**2019ko Portu Tasak eta Tarifak****KIROL- ETA JOLAS-ITSASONTZIEN TASA (T-5)**

1. Tasa honen zergapeko egitatea hauxe da: kirol- edo jolas-itsasontziek, horien tamaina edozein izanda ere, portuko zerbitzuguneko urak, zerbitzuen sareak eta harguneak eta esleitu zaien atrakatzeko edo ainguratzeke postura itsasoz sartzea ahalbidetzen duten portuko obra eta instalazioak erabiltzea, eta bertan egotea.

Tasa honen zergapeko egitatea da, era berean, itsasontzietako tripulatazaile eta bidaiariak kaiak eta pantalanak, lurreko sarbideak, errepideak eta portuko beste instalazio batzuk erabiltzea. Tasa honen zergapeko egitatea da, halaber, dagokion Portuko Agintaritzarenak diren eta erabiltzaileek baimenik eskatu gabe jasotzen dituzten zerbitzu komunak ematea, jabari publikoko aipatu elementuekin lotuak.

Tasa hau aplikagarri izateko, itsasontziak ez du salgaririk garraiatu behar eta bidaiariak ezin dute egon itsas bidaiak edo txango turistikoak egiten. Kasu horietan itsasontziaren tasa, bidaiarien tasa eta salgaiaren tasa ordaindu beharko dira, dagokionaren arabera.

Tasa honek ez dio eragiten ontzia lehorreratzeko edo lehorrean jartzeko instalazioak erabiltzeari, eta ezta ere, ontziak ur gainean edo lehorrean jartzeko edo lehorreratzeko beharrezkoak diren makinak, manipulazio-ekipamenduak eta elementu mekaniko mugikorak erabiltzeari. Instalazio eta makina horientatik dagokion tarifa ordaindu beharko da, egokia denean.

2. Subjektu pasiboak izango dira, zergadun diren neurrian eta solidarioki, itsasontziaren jabea, ontzi-kontsignataria eta kapitaina edo patroia. Emakidan edo baimenarekin jasotako dartsenetan eta kirol-instalazioetan, emakidaduna edo baimenduna zergadunen ordeko subjektu pasiboa izango da, eta zerga-betebeharraren ondoriozko eskakizun material eta formalak bete beharko ditu.

Ordezkoak ez baditu bere betebeharrak betetzen, eta bereziki, ez badu tasa ordaintzen, Portuko Agintaritzak zergadunei eskatu ahaliko die berau ordaintzeko. Hori guztia, ordezkokoak izan ditzakeen erantzukizunei kalterik egin gabe.

3. Tasa hau kirol- edo jolas-itsasontzia portuko zerbitzuguneko uretan sartzen denean sortuko da, edo atrakalekua edo ainguralekua eskueran jartzen denean.

4. Tasaren kuota osoa honako hau izango da:

a) I. gunean edo portu barruko uretan dauden eta emakidan edo baimenarekin jaso ez diren dartsenetan edo nautika- eta kirol-instalazioetan, tasaren kuota osoa honako kontzeptu hauek batzearen emaitza izango da:

1. Itsasontziak atrakalekuan edo ainguralekuan sartzea eta bertan egotea.
2. Zerbitzuak eskura izatea.

1. Itsasontziak atrakalekuan edo ainguralekuan sartzeko eta bertan egoteko, honako kuota ordaindu beharko da: itsasontziak hartzen duen azalera, metro koadrotan adierazia, portuan emandako egunekin (osoak edo frakzioa), E oinarritzko zenbatekoarekin (0,124 €) eta hurrengo taularen arabera egokia den koefizientearekin biderkatzetik ateratzen den zenbatekoa:

Atrakatze- edo ainguratze-mota	Koefizientea
Pantalanean puntakera atrakatuta eta hildakoan, buian edo ainguran amarratuta	1,00
Pantalanean puntakera atrakatuta, alboko pantalan-instalazioarekin	2,00
Kai edo pantalanean zeharka atrakatuta	3,00
Kai edo pantalanean zeharka atrakatutako ontzi bati atxikita, edo beste ontzi bati atxikita dagoen ontzi baten alboan atrakatuta	0,50
Ainguratuta eta hildakoan, buian edo puntu finkoan amarratuta	0,60
Amarraz ainguratuta, norberaren baliabideak erabiliz	0,40

Itsasbehera ekinokzial bizi eta handiena dagoenean, 2 metrotik beherako sakonera duten guneetan, koefizienteak aurreko koadroan adierazitako kopuruen %50 izango dira.

**2019ko Portu Tasak eta Tarifak**

2. Zerbitzuak eskura izateko, honako kuota ordaindu beharko da: itsasontziak hartzen duen azalera, metro koadrotan adierazia, portuan emandako egunekin (osoak edo frakzioa), E oinarriko zenbatekoarekin (0,124 €) eta hurrengo koefizienteekin biderkatzetik ateratzen den zenbatekoa:

Ur-hargunea: 0,07.

Energia elektrikoaren hargunea: 0,10.

Konsumitutako ura eta energia elektrikoa fakturatu egingo dira, tasaren likidazioa alde batera utzita.

Portuan egoitza duten ontziei dagokienez, tasaren kuota 1. eta 2. idatz-zatietan adierazitakoaren %80 izango da.

b) I. gunean edo portu barruko uretan dauden eta emakidan edo baimenarekin jaso diren dartsenetan edo nautika- eta kirol-instalazioetan, baldin eta ur-esparrua ere emakidan edo baimenarekin jaso bada, tasaren kuota osoa honako hau izango da:

Itsasontziak atrakalekuan edo ainguralekuan sartzeko eta, hala badagokio, bertan egoteko, honako kuota ordaindu beharko da: itsasontziak hartzen duen azalera, metro koadrotan adierazia, portuan emandako egunekin (osoak edo frakzioa), E oinarriko zenbatekoarekin (0,124 €) eta hurrengo taularen arabera egokia den koefizientearekin biderkatzetik ateratzen den zenbatekoa:

Itsasontzia	Orokorra	Koefizientea Gehienez 12 metroko luzerako belazko ontzia, edo gehienez 9 metroko luzerako motorrezko ontzia
Iragaitzako edo pasadizoko itsasontziak	0,39	0,15
Portuan egoitza duten itsasontziak	0,32	0,10

Itsasbehera ekinokzial bizi eta handiena dagoenean, 2 metrotik beherako sakonera duten guneetan, koefizienteak aurreko koadroan adierazitako kopuruen %50 izango dira.

Salbuespen gisa, ur-esparrua emakidan edo baimenarekin jaso ez bada, tasaren kuota idatz-zati honetan ezarritako kopurua baino %80 handiagoa izango da.

4. Itsasontziak hartzen duen azalera bere guztizko luzera eta bere zabaleraren arteko biderkaduraren emaitza izango da.

5. Emakidan edo baimenarekin jaso ez diren dartsenetan edo nautika- eta kirol-instalazioetan, tasa alde aurretik ordaindu beharko da, hurrengo irizpideei jarraituz:

a) Iragaitzako edo pasadizoko itsasontziak: baimendutako egonaldiari dagokion zenbatekoa. Egonaldi hori luzatu nahi baldin bada, subjektu pasiboak eskaera berri beharko du eta luzatutako egonaldiari dagokion zenbatekoa ordaindu beharko du alde aurretik.

b) Portuan egoitza duten itsasontziak: gutxienez sei hilabete eta gehienez urtebeteko egonaldiei dagokien zenbatekoa.

6. Emakidan edo baimenarekin jaso diren dartsenetan edo nautika- eta kirol-instalazioetan, tasa alde aurretik ordaindu beharko da, eta emakida edo baimenaren klausuletan azaltzen diren epeetan, gehieneko epea urtebetekoa izanda. Estimazio erraztuaren erregimenean eskatu ahal izango da tasa, betiere, emakidadunak edo baimendunak berariaz uko egiten ez badu. Emakiden edo baimenen zerga-kuota ezartzeko, azken bi urteetako emakidaren edo baimenaren trafikoko datu estatistikoak hartuko dira kontuan; eta aldi behin likidazio orokorra egingo da, zenbatetsitako okupazioari dagokion zenbatekoan. Horretarako, dartsenen edo nautika- eta kirol-instalazioen kudeaketarako emakida edo baimenen titularrek eskatzen zaien informazio guztia eman beharko diete Portuko Agintaritzei, eta tasa hau likidatzeko behar diren datuak ere bai. Erregimen honetan sartzan direnek %25eko hobaria izango dute zerga-kuotaren zenbatekoan.

**2019ko Portu Tasak eta Tarifak**

7. Artikulu honetan ezarritakoaren ondorioetarako, portuan egoitza duten itsasontzizat joko dira sei hilabete edo gehiagoko egonaldi baimendua dutenak.

Iragaitzako edo pasadizoko itsasontzizat joko dira sei hilabetetik beherako egonaldi baimendua dutenak.

Itsasontziaren sarrera-irteerek edo kanpoan dagoen egun-kopuruak ez dute eraginik izango tasa aplikagarriaren zenbatekoan, itsasontziak atrakalekua esleituta daukan bitartean.

**2019ko Portu Tasak eta Tarifak**

**IGAROTZE-GUNEA ERABILTZEAGATIKO TASA (T-6)**

1. Tasa honen zergapeko egitatea hauxe da: salgaiak eta garraio-elementuak Portuko Agintaritzak berariaz horretarako prestatutako igarotze-guneak eta, ezohiko kasuetan, lan-guneak erabiltzea, honako denbora-muga hauekin:

Salgaiak itsasoz sartzeko edo ateratzeko lanetan, eta baita itsas igarotzan eta barne-trafikoan ere: lau ordu portuko zerbitzugunean sartzen direnetik edo lehorreratzten direnetik, dagokionaren arabera, baldin eta itsas garraioan salgaiak eta garraio-elementuak ibilgailu gurpildun batek eraman baditu edo eraman behar baditu, eta 48 ordu gainerako kasuetan.

Lehorreko igarotze-lanetan: lau ordu portuko zerbitzugunean sartzen direnetik.

Salgaiak edo garraio-elementuak izan ez arren, Portuko Agintaritzak behar bezala baimendu dituen eta portuko zerbitzugunean 24 orduetik gorako egonaldi jarraituak egiten dituzten material, makina edo ekipamenduengatik ere tasa hau ordaindu beharko da.

Tasa honen zergapeko egitatea da, halaber, dagokion Portuko Agintaritzarenak diren eta erabiltzaileek baimenik eskatu beharrik gabe jasotzen dituzten zerbitzu komunak ematea, jabari publikoko aipatu elementuekin lotuak.

Tasa honen ondorioetarako, igarotze-gunetzat joko dira Portuko Agintaritzak berariaz horretarako prestatzen dituenak salgaiak eta garraio-elementuak aldi baterako gordetzeko asmoz, portuan egiten diren lanak bateragarriak eta eraginkorrak izan daitezzen. Portuko Agintaritzako Administrazio Kontseiluak mugatuko ditu hark kudeatzen duen portuaren edo portuen igarotze-gunea edo guneak, Ustiapen eta Zaintza Araudian eta Portuko Ordenantzetan xede horretarako ezarritakoaren arabera.

2. Subjektu pasiboa salgaiaren, garraio-elementuaren, materialaren, makinen edo ekipamenduaren jabea izango da. Salgaia eta bere garraio-elementuak kontsignatuta baldin badaude, zergadunaren ordeko subjektu pasiboak izango dira salgaia ordezkatzan duen kontsignataria, garraio-kudeatzailea edo logistikako operadorea.

Manu honetan izendatutako ordezkia behartuta geratuko da zerga-betebeharraren ondoriozko eskakizun material eta formalak betetzera. Ordezkoek ez badituzte beren betebeharrak betetzen, eta bereziki, ez badute tasa ordaintzen, Portuko Agintaritzak zergadunei eskatu ahalko die berau ordaintzeko. Hori guztia, ordezkoak izan ditzakeen erantzukizunei kalterik egin gabe.

3. Tasa hau salgaiak eta garraio-elementuak igarotze-gunea erabiltzeko gehieneko denborak gainditzen dituztenean sortuko da (salgaiaren tasaren ordaintzarekin lotuta daude denbora horiek). Salgaitzat edo garraio-elementutzat jotzen ez diren materialen, makinen edo ekipamenduen kasuan, portuko zerbitzugunean 24 ordu baino gehiago daramatenean sortuko da tasa.

4. Tasaren kuota osoa honako hau izango da: okupatutako azalera, metro koadrotan adierazia, portuan emandako egunekin (osoak edo frakzioa), T oinarritzko zenbatekoarekin (0,105 €) eta hurrengo taularen arabera egokia den koefizientearekin biderkatzetik ateratzen den zenbatekoa, okupazioaren iraupena kontuan izanik:

(okupatutako m<sup>2</sup>) x E x T x koefizienteak

	Koefizientea	€ eguneko eta m <sup>2</sup> -ko
7. egunera arte	1	0,105
8. egunetik 15.era arte	3	0,315
16. egunetik 30.era arte	6	0,63
31. egunetik 60.era arte	10	1,05
61. egunetik aurrera	20	2,10

Okupatutako azalera hauxe izango da: igarotze-gunean utzitako salgaia, garraio-elementua, materiala, makineria edo ekipamendua inguratzen duen azalera angeluzuzenik txikiena.

**2019ko Portu Tasak eta Tarifak**

5. Lan-gunea ezingo da erabili salgaiak edo beste elementu batzuk uzteko, aldez aurretik Portuko Zuzendariaren berariazko baimena jaso ezean. Kasu horretan, artikuluko honetako 4. idatz-zatian adierazitako zenbatekoak aplikatuko dira.

Tasa honen ondorioetarako, lan-gunetzat joko da atrakatzeko-lerrotik hurbilen dagoen eremua, merkataritza-ontzien eta garraio-elementuen zabalera egiteko edo bidaiariak eta bidaiari-erregimeneko ibilgailuak ontziratuta eta lehorreratzeko erabiltzen dena. Portuko Agintaritzako Administrazio Kontseiluak mugatuko ditu hark kudeatzen duen portuaren edo portuen lan-gunea edo guneak, Ustiapen eta Zaintza Araudian eta Portuko Ordenantzetan xede horretarako ezarritakoaren arabera.

6. Interes orokorreko arrazoi justifikatuak direla eta, Portuko Agintaritzak igarotze- eta lan-guneetan utzitako salgaiak edo bestelako elementuak kentzeko eskatu ahal du, eta behar adinako epe bat jarriko du horretarako. Agindutakoa betetzen ez bada, Portuko Agintaritzak isun hertsagarriak ezarri ahal izango ditu, zerga-izaerarik gabekoak: igarotze-gunea erabiltzeagatik tasaren kuotaren %20, berandututako egun edo frakzio bakoitzeko, Portuko Agintaritzak salgaia kentzeko jarritako azken egunetik aurrera.

Lehen ohartarazpena egin eta bost egunetara salgaia oraindik kendu ez bada, Portuko Agintaritzak kendu edo lekuz aldatu ahal du tasa horren subjektu pasiboaren kontura, berandututako egunengatik isuna jartzeari eta kokaleku berriarengatik dagozkion tasak edo tarifak ordainarazteari utzi gabe. Bertan behera utziztat jo diren salgaien edo bestelako elementuen kasuan, enkante-prozesua amaitu ondoren, Portuko Agintaritzak lehentasuna izango du tasak kobratzeko eta, hala badagokio, salgai horrengatik berari dagozkion multak eta tarifak kobratzeko.

7. Portuko jabari publikoa okupatzeko emakida edo baimenen titularrek ez dute tasa hau ordaindu behar emakida edo baimen horien zati diren eremuetan salgaiak, garraio-elementuak, materialak, makinak edo ekipamenduak uzteagatik. Elementu horien dagokion okupazio-tasa sortuko da.

## 2019ko Portu Tasak eta Tarifak

### JARDUERA-TASA

1. Tasa honen zergapeko egitatea hauxe da: Portuko Agintaritzaren baimena behar duten jarduera komertzialak, industrialak eta zerbitzuetaoak burutzea portuko jabari publikoan.

Aipatu jarduerak portuko jabari publikoa okupatzea baldin badakarte, jarduera-baimena jabari publikoa okupatzeko emakida edo baimenaren barruan dagoela ulertuko da, bi kontzeptuei dagozkien tasak ezartzeari kalterik egin gabe.

Jarduerak portuko zerbitzu bat ematea baldin badakar, jarduera-baimena portuko zerbitzua emateko gaitzen duen administrazio-lizentzia edo tituluaren barruan dagoela ulertuko da, eta tasa hau lizentzia horretan sartu beharko da.

2. Tasaren subjektu pasiboa jarduera-baimenaren titularra, jabari publikoa okupatzeko emakida edo baimenaren titularra edo portuko zerbitzua emateko lizentziaren titularra izango da, dagokionaren arabera.

3. Tasa hau jarduera hasten den egunean sortuko da, edo, portuko jabari publikoa okupatzea dakarten jardueren kasuan, emakida-tituluan jarduera hasteko ezarritako gehieneko epea amaitzen denean, Portuko Agintaritzaren ustez justifikatuta dauden arrazoirik egon ezean.

### **Zama manipulatzeko zerbitzu eta jarduerari dagokien jarduera-tasa**

Estatuko Portuen eta Merkantzia Ontzien Legearen Testu Bategina onesten duen irailaren 5eko 2/2011 Errege Dekretu Legegilearen 187. artikuluan, zama manipulatzeko zerbitzu eta jarduerari aplikatu beharreko jarduera-tasari dagokionez, zerga-oinarria finkatzeko irizpideak zehazten dira. Zerga-oinarria hauxe izango da: manipulatuak karga-unitateen kopurua, tonatan, edukiontzitan edo tipifikatutako bestelako garraio-elementutan, ibilgailutan edo salgaia aurkezten den beste edozein unitateren arabera neurtua.

Tasaren kuota osoa 188 b artikuluan ezarritako guztizko mugaren %5a aplikatetik jasotako emaitza izango da; ondoren aurkezten dira maneatutako portu-trafiko bolumenari dagozkien karga - tasak:

- 0,030 € solteko salgai likidoen tona bakoitzeko.
- 0,045 € solteko salgai solidoen tona bakoitzeko.
- 0,060 € salgai orokorren tona bakoitzeko.
- 0,500 € 20'ko edo tamaina txikiagoko edukiontzi normalizatu bakoitzeko (hala badagokio, 6,10 m-rainoko plataforma eta 6,10 m-rainoko kutxa duen ibilgailu zurruna barne).
- 1,000 € 20'tik gorako edukiontzi normalizatu bakoitzeko (hala badagokio, 12,30 m-rainoko plataforma, erdi-atoia edo atoa eta 12,30 m-rainoko kutxa duen ibilgailu zurruna edo artikulatua barne).
- 1,249 € zenbait atoi edo erdi-atoi dituen ibilgailu artikulatu bakoitzeko (errepide-trena).
- 0,075 € salgaiat jotzen ez den eta hutsik dagoen garraio- edo karga-elementu bakoitzeko.
- 0,200 € 2.500 kg-tik gorako eta salgai-erregimenean garraiatutako ibilgailu bakoitzeko.
- 0,100 € 2.500 kg-tik beherako eta salgai-erregimenean garraiatutako ibilgailu bakoitzeko.
- 0,090 € bidaiari bakoitzeko.
- 0,100 € bidaiari-erregimenean garraiatutako motozikleta, bi gurpileko ibilgailu, turismo eta antzeko ibilgailu bakoitzeko, atoian eramandako elementuak barne.
- 0,500 € autokar eta taldeko garraioko ibilgailu bakoitzeko.

### HOBARIAK

1. Ingurumen-jardunbide hobekak sustatzeko.

Salgaiak manipulatzeko zerbitzua emateko baimen baten titularrak jarraian adierazten diren baldintzak betetzen baditu, hurrengo hobariak aplikatuko zaizkio jarduera-tasaren kuotari:

Orokorrean: %15.

Solteko salgai solido edo likido handien trafiko manipulatuari dagokion kuotaren zatiari: %20.

### **Baldintzak:**

## 2019ko Portu Tasak eta Tarifak

1. Portuko Agintaritzarekin ingurumen-jardunbide egokiei buruzko Hitzarmena sinatuta edukitzea. Hitzarmen horrek Estatuko Portuek onetsitako ingurumen-jardunbide egokien gidaliburuetan oinarritutako argibide tekniko eta operatibo batzuk jaso beharko ditu, eta argibide horiek betetzen direla ziurtatu beharko da ingurumena kudeatzeko sistema baten bidez. Hitzarmenak manipulaturako trafiko guztiak hartu behar ditu barne.

2. Ingurumen-kudeaketa eta ikuskaritzarako erkidegoko sistemaren (EMAS) erregistroan inskribatuta egotea, edo UNE-EN-ISO-14001 arauan oinarritutako ingurumen-kudeaketako sistema bat ezarrita edukitzea, Egiaztapenerako Erakunde Nazionalak (ENAC) horretarako izendatutako erakunde batek ziurtatua. Sistema horrek baimen edo emakidaren xede den jarduerarekin loturiko zerbitzu guztiak hartu behar ditu barne.

2. Emandako zerbitzuen kalitatea hobetzeko.

Portuko zerbitzu baten emaitzak zerbitzu-ziurtagiria indarrean baldin badu, Estatuko Portuek zerbitzuaren kalitaterako onartutako erreferentzietan oinarritua, edo hala badagokio, Portuko Agintaritzak erreferentzia horiek garatzeko onartu dituen erreferentzia espezifikoetan oinarritua, eta ziurtagiri hori xede horretarako UNE-EN 45011 Arauaren arabera ENACek egiaztatutako erakunde batek luzatu baldin badu, jarduera-tasaren kuotari %15eko hobaria aplikatuko zaio.

3. Salgaiak manipulatzeko zerbitzuaren lizentzia baten titularrak %30etik gorako ehunekoan gainditu baldin baditu zerbitzuaren baldintza partikularren agirietan ezarritako gutxieneko produktibitate-mailak, produktibitateak balio horrekiko izan duen gehikuntzaren ehunekoaren pareko hobaria aplikatuko zaio jarduera-tasaren kuotari, %50eko mugarekin. Hobari honen likidazioa ekitaldiaren amaieran egingo da, jarduera-tasa Estatuko Portuen eta Merkantzia Ontzien Legearen Testu Bategina onesten duen irailaren 5eko 2/2011 Errege Dekretu Legegilean, 191 artikuluan ezarritakoaren arabera likidatzen denean. Hobariaren zenbatekoa kalkulatzeko, ekitaldiko produktibitatearen batez besteko balioak hartuko dira kontuan.

Tasa bati hobari bat baino gehiago baldin badagokio, hobariak bata bestearen ondoren ezarri eta biderkatuko dira. Xede horretarako, kuota osoa dagozkion ondoz ondoko koefiziente murriztaileekin biderkatuko da; unitatea ken batekoetan adierazitako hobariaren balioa izango da koefiziente murriztailea.

### **Arrantza freskoaren tasarekin loturiko jarduera-tasa**

Arrantza freskoarekin loturiko jarduera-tasa arrantza-balioaren % 1 izango da.

### **Itsasontzientzako erregai-hornidurarekin loturiko zerbitzu eta jarduerari dagokien jarduera-tasa**

Itsasontzientzako erregai-hornidurarekin loturiko zerbitzu eta jarduerari dagokien jarduera-tasa 2,1445 €/Tm-koa da.



**2019ko Portu Tasak eta Tarifak**

**NABIGAZIOARENTZAKO LAGUNTZAREN TASA**

1. Tasa honen zergapeko egitatea hauxe da: Estatuko Portuen eta Merkantzia Ontzien Legearen Testu Bategina onesten duen irailaren 5eko 2/2011 Errege Dekretu Legegilearen 137. artikuluan zehazten den itsas seinaleztapeneko zerbitzua erabiltzea.

2. Tasa honen subjektu pasiboak dira, zergadun diren neurrian eta solidarioki, itsasontziaren jabea, ontzi-ustiatzailea, eta itsasontziaren kapitaina edo patroia. Itsasontzia kontsignatuta baldin badago, zergadunaren ordezkotzat subjektu pasiboa ontzi-kontsignataria izango da; eta emakidan edo baimenarekin jaso diren portu, darsena, kai, pantalan eta bestelako nautika-eta kirol-instalazioetan, emakidaduna edo baimenduna.

Idatz-zati honetan izendatutako ordezkotzat guztiak solidarioki behartuta geratuko dira zerga-betebeharraren ondoriozko eskakizun material eta formalak betetzera, Portuko Agintaritzak lehenik emakidaduna edo baimendunarengana jotzeari kalterik egin gabe. Ordezkoek ez badituzte beren betebeharrak betetzen, eta bereziki, ez badute tasa ordaintzen, Portuko Agintaritzak zergaduneri eskatu ahalko die berau ordaintzeko. Hori guztia, ordezkotzak izan ditzakeen erantzukizuneri kalterik egin gabe.

3. Itsasontzia Espainiaren jurisdikziopeko uretan zerbitzua jasotzen hasten denean sortuko da tasa.

4. Tasaren kuota osoa honako hau izango da:

a) Merkataritza-ontziak, arrantza-ontzi izoztaileak eta, oro har, beren ezaugarriengatik itsasontziaren tasa aplikagarri zaien ontziak:

**(GT x 0,01995) €**, gutxienezkoa 100 GT izanda, urte natural bakoitzeko Espainiako portu bakoitzean egindako lehen hiru geldialdietan.

b) Alturako edo altura handiko itsasontziak:

b1) Egoitza Espainiako portu batean duten itsasontziak:

**(GT x 0,57) €**, urte natural bakoitzeko.

b2) Egoitza Espainiako portu batean ez duten itsasontziak:

Tasaren kuota horrela ondorioztatuko da: b1) ataleko ondoriozko kuota, urte natural bakoitzaren egun kopuruaz zatitu, eta espainiar eskumeneko uretan ontzi edo itsasontziaren egonaldiaren egun kopuru osoaz edo zatikiaz biderkatu.

c) Baxurako edo itsasertzeko itsasontziak.

c1) Egoitza Espainiako portu batean duten itsasontziak:

**28,50 €** urte natural bakoitzeko.

c2) Egoitza Espainiako portu batean ez duten itsasontziak:

Tasaren kuota horrela ondorioztatuko da: c1) ataleko ondoriozko kuota, urte natural bakoitzaren egun kopuruaz zatitu, eta espainiar eskumeneko uretan ontzi edo itsasontziaren egonaldiaren egun kopuru osoaz edo zatikiaz biderkatu.

d) 9 metro edo gehiagoko luzera duten motorrezko jolas- edo kirol-itsasontziak, eta 12 metro edo gehiagoko luzera duten belazko ontziak, baldin eta nabigazioko lizentzia, bulegoko rola edo itsasontzien hornidura eduki behar badute.

d1) Egoitza Espainiako portu batean duten itsasontziak:

**(9,12 x luzera x zabalera) €**, urte natural bakoitzeko.

**2019ko Portu Tasak eta Tarifak**

d2) Egoitza Espainiako portu batean ez duten itsasontziak:

Tasaren kuota horrela ondorioztatuko da: d1) ataleko ondoriozko kuota, urte natural bakoitzaren egun kopuruaz zatitu, eta espainiar eskumeneko uretan ontzi edo itsasontziaren egonaldiaren egun kopuru osoaz edo zatikiaz biderkatu.

e) 9 metrotik beherako luzera duten motorrezko jolas- edo kirol-itsasontziak, baldin eta nabigazioko lizentzia, bulegoko rola edo itsasontzien hornidura eduki behar badute:

e1) Egoitza Espainiako portu batean duten itsasontziak:

**(22,8 x luzera x zabalera) €**, behin bakarrik eta baliozkotasun mugagabearekin.

e2) Egoitza Espainiako portu batean ez duten itsasontziak:

Tasaren kuota horrela ondorioztatuko da: e1) ataleko ondoriozko kuota, urte natural bakoitzaren egun kopuruaz zatitu, eta espainiar eskumeneko uretan ontzi edo itsasontziaren egonaldiaren egun kopuru osoaz edo zatikiaz biderkatu.

5. Tasa aldez aurretik ordaindu beharko da, eta estimazio erraztuaren erregimenean eskatu ahal izango da emakidan edo baimenarekin jasotako portu, dartsena, kai, pantalan eta atrakatzeko bestelako instalazioetan, eta baita nautika- eta kirol-instalazioetan ere, emakidadunak edo baimendunak berariaz uko egin ezean. Emakiden edo baimenen zerga-kuota ezartzeko, azken bi urteetako emakidaren edo baimenaren trafikoko datu estatistikoak hartuko dira kontuan; eta aldiari behin likidazio orokorra egingo da, zenbatetsitako okupazioari dagokion zenbatekoan. Erregimen honetan sartzen direnek %20ko hobaria izango dute zerga-kuotaren zenbatekoan.

**PASAIKAKO PORTUKO AGINTARITZAK EMANDAKO ZERBITZU KOMERTZIALENGATIKO TARIFAK ETA GAINERAKO TARIFAK**

Estatuko Portuen eta Merkantzia Ontzien Legearen Testu Bategina onesten duen irailaren 5eko 2/2011 Errege Dekretu Legegilearen 246. artikulua dioenez Portuko Agintaritzek tarifa jakinak ezarriko dituzte erakunde pribatuekin konkurrentzian ematen dituzten zerbitzu komertzialen truke. Tarifa horiek prezio pribatuen izaera izango dute; beren helburua autofinantzaketan lortzen laguntzea eta trafiko gatibuei dagokienez gehiegikeriazko jokoerak saihestea izango da, eta baita ere, jarduera diskriminatzaileak eta antzeko beste batzuk ekiditea. Tarifok ezingo dute izan zerbitzuaren kostua baino baxuagoak, eta Enpresako Planean finkaturiko xedeak betetzera zuzenduko dira. Salbuespen gisa, zerbitzuaren kostua baino txikiagoak diren tarifak hitzartu ahalko dira, jarduera baxua denean eta erakunde pribatuekiko konkurrentziarik ez dagoenean.

Pasaiaiko Portuko Agintaritzako Administrazio Kontseiluak, 2018ko abenduaren 13 egindako bilkuran, honako tarifa hauek onetsi ditu zerbitzu komertzialentzat eta gainerako zerbitzuentzat:

**T-7 BILTEGIRATZEA**

**1.- Aplikazio-eremua.**

1.1.- Biltegiratze-tarifa honako hauetan aplikatuko da:

- a) Portuko Agintaritzaren titularitatepeko biltegiak, aduana-barrutiaren barruan daudenak (barne-biltegiratzea) eta bertatik kanpo daudenak (kanpo-biltegiratzea) bereiziz.
- b) Kaietako itsaslabarrarekiko paraleloa den lerrotik kanpo kokatuta dauden espazio estaligabeak, baina hala ere aduana-barrutiaren barruan daudenak eta kanpoan daudenak bereiziko dira.
- c) Atrakatze baten igarotze-eremua beste baten biltegiratze-eremutzat hartu ahal izango da bertatik edo bertara merkantziak garraiatzea beharrezkoa den kasuetan. Atrakatze hau itsasontzi bati izendatzen baldin bazaio, altxa egin beharko da merkantzia Zuzendariak adierazitako epean.

1.2.- Ez du tarifa hau ordaintzea eragingo portuko jabari publikoa okupatzeak eta erabiltzeak, baldin eta dagozkion baimen edo emakidak ematea eskatzen duten jarduerak egiteko bada.

1.3.- Igarotze-eremua okupatzeak ez du tarifa hau ordaindu beharrik eragingo. Estatuko Portuen eta Merkantzia Ontzien Legearen Testu Bategina onesten duen irailaren 5eko 2/2011 Errege Dekretu Legegilearen 231tik 236ra bitarteko artikuluetan arautua dago igarotze-eremuaren okupazioa.

**2.- Egitate fakturagarria, ordainketaren subjektu erantzulea eta kalkulatzeko modua.**

2.1.- Tarifa hori, hain zuzen, merkantziak eta ibilgailuak biltegiratzeko eremuak, zabaldiak, estalpeak, lehorpeak eta biltegiak erabilgarri jarzteagatik eta, hala egokituz gero, erabiltzeagatik eskatu ahal izango da.

2.2.- Tarifa hori zerbitzua eskatzen dutenek ordainduko dute, eta ordainketaren erantzule subsidiario izango dira biltegiratutako merkantzien jabeak.

2.3.- Tarifa hau erreserbatutako denboraren eta okupatutako azaleraren arteko biderkadurari aplikatuko zaio.

- a) Merkantziek edo ibilgailuek okupatutako eremuak neurtzeko modua bertan utzitako merkantzien edo elementuen multzo osoak kanpoaldetik biltzen duen errektangelua izango da; errektangelu hori definitzeko, errektangeluaren bi alde kaiko itsaslabarrarekiko paralelo izango dira, eta lortzen den metro koadro kopurua biribildu egingo da hamartarik gabeko zenbaki hurbilena erdiesteko. Berdin jotatuko da lehorpe eta biltegiekin, eta beren aldeak erreferentzia modura hartuko dira.
- b) Likidaziorako oinarri gisa deskargaren amaieran okupatutako azalera hartuko da, aurreko a) apartatuan ezarritakoaren arabera neurtua.
- c) Kargatzean, aldiz, ontziratze eragiketarik hastean okupatzen den azalera hartuko da likidaziorako oinarri gisa.

## 2019ko Portu Tasak eta Tarifak

- d) Portuko Agintaritzak, zerbitzu-kudeaketaren eraginkortasuna eta ustiapenaren zentzuzkotasuna erdiesteko irizpideari eutsiz, azalera hori partidaka zenbatzea edo kargamentua osorik zenbatzea erabakiko du.
- e) Azalera hori murriztuz joango da, ordainketari begira, merkantzia laurdenka altxatu ahala, eta osorik hartuko da harik eta okupatutako azaleraren 100eko 25 altxatzen ez den arte, 100eko 75 baldin eta altxatze hori 100eko 25etik gora izanik 100eko 50era iristen ez bada, 100eko 50 baldin eta 100eko 50etik gora bada 100eko 75era iritsi gabe, eta 100eko 25 100eko 75etik gora bada, okupatutako azalera osoa erabat libre uzten den arte.
- f) Portuko Agintaritzak beharrezko ikusten badu, beste neurketa-sistemaren bat ezarri ahal izango du mailakatze desberdinekin, edo bestela, jarraitua, merkantzia altxatzeko prozesuaren arabera.
- g) Erreserba-epaia hasten den lehen egunetik merkantziak azalera hori libre uzten duen arte kontatuko da biltegiatzea.
- h) Erreserba-epaia hasteko hogeita lau ordu baino gutxiago geratzen direnean baliogabetzen edo aldatzen bada erreserba hori, edo baliogabetze hori ez bada egiten eta merkantzia ez bada portura iristen, Portuko Agintaritzak eskubidea izango du merkantzia horri aplikagarri zaion tarifa kobratzeko erreserba hasi den egun osoagatik, erreserbatutako azalera hori beste merkantzia batek erabili ahal izango duen arren.
- i) Zuzendariak finkatzen duen moduan eta pilaketarako zehaztu dituen agindu eta altuerekin utziko dira merkantziak, indarrean dauden xedapenekin bat etorritik, eta errespetatu egin beharko dira pilaketa horien egonkortasuna bermatzeko beharrezkoak diren neurriak, zabaldiek duten pilaketa-gaitasuna eta abar.
- j) Edonola ere, tarifa honen ondorioetarako, azalera bat libre dagoela kontsideratu ahal izateko, hura okupatu zeneko kontserbazio- eta garbitasun-baldintza berdinetan geratu beharko du eta beste okupazio batzuetarako erabilgarri eta egoki izan beharko du. Erabiltzaileak, merkantziak edo ibilgailuak erretiratu ondoren, obligazio hori betetzen ez badu, Portuko Agintaritzak dhalmena izango du bere kabuz aipatutako kontserbazio- eta garbitasun-lan horiek egiteko, dagokion kargua hari egotziz.

### 3.- Maniobra, zirkulazio eta biltegiatzeko eremuak mugatzea.

3.1.- MANIOBRARAKO EREMUA. Itsasontzientzako atrakalekuen ondoko eremua da, garabien bideek, trenbideek eta kaiko itsaslabarraren ondoko zirkulazio-bideek okupatzen dutena. Ez da merkantziak uzteko eremu bat, Zuzendariak baimendutako kasu batzuk salbu uzten baditugu. Garabiaren barne-erretitik edo trenbidetik lehorrerantz 2 metroko tarteraino hedatzen da.

Atrakatze bakoitzaren maniobra-eremua kaiarekiko elkarzut diren bi lerroek mugatuta geratuko da halaber, amarrean erabilitako bi mutiloi urrunenetatik abiatuta marraztuak.

3.2.- IGAROTZE-EREMUA. Atrakatze bakoitzaren maniobra-eremuarekin muga egiten duen eremua da, eta biltegien fatxadaraino hedatzen da, horrelakorik badago, edo bestela, kaietako garabien ekintza-erradioa gutxi gorabehera definitzen duen itsaslabarrarekiko paraleloraino.

Atrakatze bakoitzaren maniobra-eremua kaiarekiko elkarzut diren bi lerroek mugatuta geratuko da halaber, amarraztean erabilitako bi mutiloi urrunenetatik abiatuta marraztuak.

3.3.- BILTEGIATZE-EREMUA. Portuko merkataritza-erabileren eremuaren barruan igarotzeko eremu edo maniobrarako eremu gisa sailkatuta ez dauden zabaldi guztiak sartzen dira eremu mota honen barruan.

### 4.- Hautsa sortzeko gaitasun handia duten produktuak manipulatzeko eta biltegiatzeko arauak.

4.1.- Produktu hauek manipulatu, gorde eta biltegiatzean, solteko salgai solidoak manipulatzeko Jarraibide teknikoan ezarritakoak arautuko du.

4.2.- Buenavista kaian ikatza, petrolio-kokea, clinquer edo txatarra deskargatzeko, beharrezkoa izango da Zuzendariak alde zuzenetik baimen idatzi bat ematea.

**2019ko Portu Tasak eta Tarifak**

**5.- 1 zenbakidun Biltegia erabiltzea.**

1 zenbakidun biltegia kontrol fitosanitarioaren mende dauden merkantziak erabiltzeko izango da lehentasunez. Lehentasun horretaz baliatzeko, zamaketariak edo kontsignatarioak jakinarazi egin beharko du 20 urte lehenagotik itsasontzia etortzekoa dela, eta une horretan erabiltzen ari dena behartuta egongo da aipatutako epe horretan bertan uztera.

**Biltegiatze estaligabea**

Egunak	Barnean	Kanpoan
	€/m <sup>2</sup>	€/m <sup>2</sup>
1etik 90era	0,0500	0,0300
91tik 120a	0,1000	
120tik gora	0,2000	

**Biltegiatze estalia**

Egunak	Barnean	Kanpoan
	€/m <sup>2</sup>	€/m <sup>2</sup>
1etik 30era	0,0863	0,0604
31etik 60ra	0,1764	
60tik gora	0,3528	

**T- 8.1 UR-HORNIDURA**

Azalpena	€/m <sup>3</sup>
Itsasontziarentzako hornidura	2,43
Ur gazia	1,64
Lehorreko hornidura (jarritako kontagailu bakoitzeko gutxieneko jasoaldia 5 m <sup>3</sup> hilabeteko)	1,90
Etxebizitzetarako hornidura (gutxieneko jasoaldia 5 m <sup>3</sup> )	1,76

**T- 8.2 ENERGIA ELEKTRIKOAREN ETA ARGITERIAREN HORNIDURA**

Horniduraren prezioa 0,3199 €-koa izango da Kw bakoitzeko, gutxieneko kontsumoa 98,53 Kw hileko zenbaketan. Pantalanetan eta arrantza-kaietan kokatutako dorretxoetan egindako hornidurari ez zaio gutxieneko kontsumoa aplikatuko.

Garabientzako energia elektrikoaren horniduragatik 0,3679 € kobratuko dira Kw bakoitzeko, gutxieneko kontsumoa 85,47 Kw izanik.

**INPRIMAKIAK:**

Arrantza-aitorpenen liburuxka: 9,93 € ale bakoitzeko.

Hornidura eskatzeko liburuxka: 5,20 € ale bakoitzeko.

Zerbitzuak eskatzeko liburuxka: 5,20 € ale bakoitzeko.

**KONTAGAILUA ALOKATZEA:**

Ur-kontagailua noizean behin erabiltzen dutenek 8,00 € ordaindu beharko dituzte eguneko. Erabilera hilabetetik gorakoa izanez gero, kontagailua erosi egin beharko da.

Kontagailua 232,97 eurotan salduko da.

**PORTURA SARTZEKO TXARTELAK**

Prezioa txartel bakoitzeko: 15,55 €.

**2019ko Portu Tasak eta Tarifak**

**TARIFA HAINBAT MERKATARITZA ZERBITZURENGATIK**

- **RO-RO Aldapak erabiltzea:** Ro-ro aldapa erabiltzeari dagokion prezioa 242,57 €/h da. Aldapa erabiltzen den denbora errealak fakturatuko da, bai ontziratzeke eragiketetan eta bai lehorreratzeke eragiketetan ere.
- **Donibane kaian karentze-eremua erabiltzea:**

Kontzeptua	Zenbatekoa
Itsasontzia altxatzea. Itsasontzia altxatzen denetik 48 ordutan edukitzea ere jasotzen da horren barruan.	25,69 €
Itsasontzia itsasoratzea.	25,69 €
Itsasontzia sehaska gainean kaian edukitzea, 24 orduko epe gehigarri bakoitzeko.	10,00 €/eguneko
Itsasontzia kaian gurdi propioaren gainean uztea, 4. egunetik aurrera.	10,00 €/eguneko

**ITSASONTZIEK SORTUTAKO HONDAKINAK JASOTZEKO ZERBITZUA**

Ontziek sortzen dituzten hondakinen isurketak itsasoan gutxitzeko asmoz, Portu Agintaritzek tarifa finko bat kobratuko diete porturaten diren ontziei, eskala bakoitzean, Estatuko Portuei eta Merkataritza Nabigazioari buruzko Legearen Testu Bategina onesten duen irailaren 5eko 2/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 132. artikulua aurreikusten duen hondakinak jasotzeko zerbitzua erabili edo ez. Aipatutako tarifa ontziaren erregistroko tonaje gordinaren (GT) unitateen arabera izango da, eta bidaiari-ontzien kasuan, doan pertsona kopuruaren arabera. Gainera, portuaren I Gunean lur bidezko baliabideak erabiliz, Marpol 73/78 Hitzarmenaren I eta V eranskinetan jasotako hondakinak deskargatzeko eskubidea emango du, kostu gehigarrik gabe, eskalaren lehen zazpi egunetan zehar. Portu Agintaritzek ezingo dute zuzenean edo zeharka sustatu deskargatzen diren hondakinen bolumenak mugatzea.

IV. eta VI. Eranskinetako hondakinen deskargengatik, eta baita geldialdiaren zazpigarren egunetik aurrera egindakoengatik ere, itsasontziek zuzenean ordainduko diete dagokion tarifa hondakinen bilketa-zerbitzuaren emaitzari, jasotako bolumenen arabera.

Portu batean egiten duen geldialdi bakoitzean itsasontzi bati aplikatu beharreko tarifa finkoa kalkulatzeko, oinarritzko R1 zenbatekoa (80,00 €) biderkatuko da hurrengo koefizienteekin, itsasontziaren tonaje gordinarekin (GT) unitateen arabera:

- a) 0 eta 2.500 GT arteko itsasontziak: 1,50
- b) 2.501 eta 25.000 GT arteko itsasontziak:  $6 \times 0,0001 \times GT$
- c) 25.001 eta 100.000 GT arteko itsasontziak:  $(1,2 \times 0,0001 \times GT) + 12$
- d) 100.000 GTtik gorako itsasontziak: 24,00

Bidaiari-ontzien kasuan, ferriak, ropax eta gurutzatzeak kasu, oinarritzko R1 kuotaren balioa 75,00 eurokoa izango da. Ontzi horietan, aurreko tarifari oinarritzko R2 kuota (0,25€) eta ontzian dagoen bidaiari kopuruaren arteko biderketaren emaitza gehituko zaio. Horretarako, Eskalaren Aitorpen Bakarrean dagoen informazioa hartuko da, eta bidaiariez gain, tripulazioa ere kontuan hartuko da.

Itsasontziek sortutako hondakinak jasotzeko dagokion tarifa finkoaren ordainketa nahitaezkoa da itsasontzi guztientzat portuan egiten den eskala bakoitzean, gehienez ere zazpi egunetan behin, jarraian aipatzen diren hobariak eta salbuespenak salbuetsiz.

**HOBARIK**

a) Bere ingurumen-kudeaketa, diseinua, ekipamendua edo ustiapena dela eta, itsasontziak hondakin gutxiago sortzen dituela egiaztatzen duen Itsas Administrazioaren ziurtagiria baldin bada: %20. Bidaiari-ontzien kasuan, ziurtagiriak I eta V eranskinetako hondakinak ezberdinduko ditu, eta hobaria tarifa finkoaren oinarritzko R1 (I. eranskina) edota R2 (V. Eranskina) kuotari lotuta aplikatuko da hurrenez hurren, lortutako ziurtagiriaren arabera.

b) Geldialdi batean I. Eranskinetako hondakinak deskargatzen ez duen itsasontzi batek, Itsas Administrazioak luzatutako ziurtagiriak, Portuko Agintaritzaren aurrean alderdi hauek egiaztatzen baditu: eranskin horretako hondakinak entregatu dituela eta dagozkion tarifak ordaindu dituela geldialdia egin duen azken portuan, baldin eta bermatzen baldin bada aipatu hondakin guztiak portu horretan jaso direla, aurreko geldialditik hondakinok biltegitzako edukiera gaintu ez dela eta hurrengo geldialdira arte edukiera hori gaintuko ez dela: %50. Bidaiari-ontzien kasuan, hobaria oinarritzko R1 kuotari lotutako tarifa finkoari bakarrik aplikatuko zaio.

c) Geldialdi erregularrak eta ohikoak egiten dituzten trafiko erregularreko ontziak, batez ere bide laburreko itsas garraioko lineatan eta barne-trafikoan dihardutenak, baldin eta, Itsas Administrazioak luzatutako ziurtagiriak, Portuko Agintaritzaren aurrean alderdi hauek egiaztatzen badira: itsasontziak I. eta V. Eranskinetako hondakinak jasotzeko plan bat duela, dagozkion tarifak bere ibilbideko portuetako batean ordainduko dituela eta, portu horretan gelditzen denean, bere hondakin guztiak bertan jasoko direla; alegia, bere bidaiari guztietan hondakin-mota bakoitzarentzako gehieneko edukiera gaintuko ez dela:  $\%100 \times [1 - (0,30 / (n-1))]$ , n itsas lineako ontzia astean gelditzen den batez besteko portu-kopurua izanik, eta betiere, n 2ren berdina edo handiagoa bada. Hala ere, itsasontziek deskarga egiten duten geldialdian tarifa finkoaren zenbateko osoa ordaindu beharko dute. Nolanahi ere, aipatutako itsasontziek

## 2019ko Portu Tasak eta Tarifak

dagokien tarifa ordainduko dute, gelditzen diren portu bakoitzean, gehienez ere zazpi egunean behin, eta tarifa finkoaren zenbateko osoa egokituko zaie, epealdi horretan deskargarik egin bada. Bidaiari-ontzien kasuan, ziurtagiriak I eta V eranskinetako hondakinei dagokien plan bat bereiziko ditu, eta hobaria tarifa finkoaren oinarritzko R1 (I. eranskina) edota R2 (V. Eranskina) kuotari lotuta aplikatuko da hurrenez hurren, dagokion hondakina deskargatzen ez den portuetan.

c) kasuan, ontziak duen planak MARPOL 73/78 Hitzarmenaren V. Eranskinean jasotzen diren hondakin solidoak soilik ziurtatzen baditu, hobaria kasu horretarako xedatutakoaren arabera dagokionaren herena izango da. Bidaiari-ontzien kasuan, hobaria oinarritzko R1 kuotari dagokion tarifa finkoaren herenaren gainean eta oinarritzko R2 kuotari dagokion tarifa finkoaren ehuneko ehunaren gainean aplikatuko da.

Ontziak duen planak I. Eranskinean jasotzen diren hondakin likidoak soilik ziurtatzen baditu, hobaria bi hereneko izango da. Bidaiari-ontzien kasuan, hobaria oinarritzko R1 kuotari dagokion tarifa finkoaren bi herenaren gainean aplikatuko da, eta hobaria ez da aplikatuko oinarritzko R2 kuotari dagokion tarifa finkoaren zatiaren gainean.

### SALBUESPENAK

Itsasontziek sortutako hondakinak jasotzeko tarifa finkoa ordaintzetik salbuetsita egongo dira jarraian adierazten diren ontziak, benetan entregatzen dituzten hondakin-bolumenei dagozkien zenbatekoak zerbitzuaren emaileari zuzenean ordaintzeari kalterik egin gabe:

a) Gerraontziak, ontzi-unitate laguntzaileak eta, Europar Batasuneko Estatu batenak izanik edo haren zerbitzura egonik, merkataritzakoak ez diren gobernu-zerbitzuak soilik eskaintzen dituztenak.

b) Portuko Agintaritzaren zerbitzura dauden itsasontziak edo portuko zerbitzugunean egindako lanekin loturikoak, Herri Administrazioen zerbitzura dauden eta portuan egoitza duten ontziak, portu-zerbitzu baten zati direnak eta itsasontziak hornitzera zuzenduta daudenak, baldin eta Itsas Administrazioak luzaturiko ziurtagiriaz Portuko Agintaritzaren aurrean egiaztatzen bada itsasontziak sortzen dituen hondakinak aldian behin entregatzeko plan bat dagoela. Plan hori zerbitzuaren emaileetako batek onartu beharko du, eta entregatutako hondakinak hiru hilean behin justifikatu beharko dira.c) Arrantza freskoko itsasontziak. Kasu honetan, Portuko Agintaritzak hitzarmena sinatu beharko du arrantzale-kofradiekin, itsasontziak sortutako hondakinak aldian behin entregatzeko plan bat finkatzeko asmoz. Plan hori zerbitzuaren emaileetako batek onartu beharko du, eta entregatutako hondakinak hiru hilean behin justifikatu beharko dira.

d) Gehienez ere 12 bidaiari eramateko baimenduta dauden kirol- edo jolas-itsasontziak. Kasu honetan, Portuko Agintaritzak hitzarmena sinatu beharko du dartsenen edo nautika- eta kirol-instalazioen operadoreekin, itsasontziak sortutako hondakinak aldian behin entregatzeko plan bat finkatzeko asmoz. Plan hori zerbitzuaren emaileetako batek onartu beharko du, eta entregatutako hondakinak hiru hilean behin justifikatu beharko dira.

e) Ainguratzea ahalbidetzeko hobekuntza-lanak egiterik eta ekipamenduak instalatzerik behar izan ez duten eremu geografikoetan ainguratzen duten ontziak.

f) Jardunean ez dauden itsasontziak eta ur gainean eraikitzen, konpontzen, eraldatzen eta zatikatzen ari diren itsasontziak.